

EMAKUMEA
ETA
EUSKAL IRAKASKUNTZA

HIZNET
HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA

IKASLEA: Eunate Irazabal

TUTOREA: Jone Miren Hernandez

0.AURKIBIDEA

1. SARRERA.
2. EUSKAL EMAKUMEA, BASERRIA ETA HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA.
3. EUSKAL EMAKUMEA, ESKOLA ETA HIZKUNTZAREN BERRESKURAPENA
 - 3.1. Emakumea hizkuntzaren eta tradizioaren mantentzaile.
 - 3.1.1. Gerraurrea.
 - 3.1.1.1. Euskal irakaskuntzaren lehen formulatzeak.
 - 3.1.1.2. Emakume Abertzale Ekintza eta euskal irakaskuntza.
 - 3.1.2. Gerraostea.
 - 3.1.2.1. Elbira Zipitria eta Donostiako etxe-eskolak
 - 3.2. Emakumea eta euskal irakaskuntza mundu berrian: ikastolen hastapenak.
 - 3.2.1. Ikastolak eta hizkuntzaren berreskurapena, 60.hamarkadan.
4. GAUR EGUNEKO EUSKAL HERRIAN EMAKUMEAK ETA IRAKASKUNTZA: ZENBAIT DATU.
5. ONDORIOAK
6. BIBLIOGRAFIA.

1.SARRERA

Hizkuntzaren garapenerako duen garrantzia kontuan harturik, euskal gizartean emakumea eta irakaskuntzaren artean dagoen harremana aztertuko dut sakontze egitasmo honetan. Izan ere, estuki harremanduta ageri zaigu heziketaren arloa, oro har, eta irakaskuntzarena, bereziki, emakumearekin.

Harreman hori erakusteko, lehenengo eta behin emakumeak Euskal Herrian tradiziozko gizartean bete duen rola azalduko dut, ondoren, euskal irakaskuntza formalaren hastapenetara joko dut eta horretan emakumeek egindako lana erakutsiko dut. Azken atalean, berriz, gaur egunean emakumeak irakaskuntza arloan daukan leku nabarmena erakusten saiatuko naiz hainbat datu emanez.

Euskal irakaskuntza zeri deitu diodan argitze aldera, euskaraz burutzen den jakintza arlo desberdinen irakaskuntzari ez ezik, euskara bera irakasteko eta euskal kultura transmititzeko egiten den irakaskuntzari erreferentzia egiten diola esan nahiko nuke. Termino hori egokia iruditu zait, Euskal Herrian XX. mendearen hasieratik eraikiz joan den hezkuntza proiektu berezituari izena emateko. Izan ere, hezkuntza proiektu horren barruan euskararen formalizazio edo normalizazio urratsak eman direnez, euskara hizkuntzalaritza arlotik aztertu eta irakasteak garrantzi handia izan du. Eta bestetik, euskal irakaskuntzaren bidez kultura eta hizkuntza propioaren transmisioa burutu da.

Gaur egun, ordea, euskara irakaskuntza arloan pixkanaka normalizatuz joan den heinean, aldaketa batzuk nabari direla uste dut. Aldaketa horiek, alde batetik, onerako izan dira irakaskuntzaren bidez euskara jende gehiagok jakin eta ulertzen duelako. Baina, beste

aldetik, arlo horretan euskal kulturarekiko eten bat gertatzen ari dela deritzot. Hori dela eta, 5. atalean ikusiko dugun bezala, gaur eguneko irakaskuntzari buruzko azalpenetan, euskal irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza termino biak bereiztea erabaki dut.

Argipen hori eginda, *Emakumea eta euskal irakaskuntza* lan hau egiteko izan ditudan motibazioak aipatu nahi nituzke. Bereziki bi izan dira lana egiteko pizgarri izan zaizkidanak. Alde batetik, aurten Korrika 15ek emakumeei euskararen transmisioan egindako lanagatik egin dien omenaldia. Bestetik, berriz, HIZNET-eko *Hizkuntza kulturaren bitarteko gisa. Antropologiaren ekarpenak* ikasgaiari Antropologia linguistikoari buruz aurkitu ditudan azalpenak.

Lehenengoari dagokionez, Korrika bezalako euskararen aldeko ekimen berezi eta garrantzitsuak emakumeei omenaldia egiteak zer pentsatua eman zidan. Omenaldi horretan egin zen ekitaldian haurdun zegoen emakume bat igo zen oholtzara. Eta hark sabela igurtziz poesiara hurbiltzen ziren hitzok esan zizkion barruan zeraman haurrari:

“Aho hortzetatik emango dizut nire esnea; fonemak, silabak, hitzak, esaldiak...neure beste esnea. Zure abestien fonetika, zure ipuinen lexikoa, zure jolasen ortografia, zure sentimenduen sintaxia, zure pentsamenduaren gramatika”.

Hitzok oso esanguratsuak direla deritzot. Amak haurtxoari titia ematearekin batera, hizkuntza ematen diola adierazten baitute. Nolabaiteko harremana erakusten dute, emakumeen bizitza emateko edo ugaltzeko ahalmena eta, era berean, hizkuntzari bizitza emateko ahalmenarekin.

Eta korrikarako prestatu ohi den manifestuan ere emakumeek garai ezberdinetan euskararen transmisioan egin duten lana azpimarratu zen. Menderik mende etxeetan gorde, atxiki eta ahoz aho iraunarazi dutela. Francoren garaian gau-eskola eta ikastolak sortu zituztela. Eta gaur egun euskara eta euskal kulturaren alde egiten

duten lana begi-bistakoa dela: gau-eskoletan, ikastoletan, kulturgintzan...

Korrikak bere 15.edizioan emakumeei errekonozimendua egin nahi izan zien egindako lan guztiagatik. Eta nik ere antzekoa egin nahi izan dut, honako lan honen bidez. Eta horretarako Korrikaren manifestuan ageri diren garai ezberdinak aintzat hartuz emakumeek bai hizkuntzaren eta bai kulturaren irakaskuntzan egin duten lana erakutsi nahi izan dut.

Lana egiteko izan ditudan motibazioekin jarraituz, HIZNETeko *Hizkuntza Kulturaren bitarteko gisa. Antropologiaren ekarpenak*. ikasgaitik ateratako hainbat gogoeta ekarri nahi nituzke hona. Izan ere, ikasgai horretan Hizkuntza Antropologiari buruzko teoria eta kontzeptu berriak azaltzen dira, hizkuntza, gizartea eta kulturaren artean dauden harreman sakon eta konplexuak agerian utziz.

Teoria hauen arabera, hizkuntzek gauzei izena jartzeaz gain, bestelako funtzioak betetzen dituzte. Gizartean ordena finkatzen duen sistemaren zatitzat hartzen da hizkuntza.

Era berean, hizkuntzaren ikerketari loturiko beste jakintza-arlo batzuk ez bezala, Hizkuntza Antropologiak arreta berezia jartzen du hizkuntzaren erabiltzaileengan. Hizkuntzak erabiltzaileei lotuta daude, eta hizkuntza baten errealitatea ulertzeko, erabiltzaileen izaera, ohiturak, ikuskera, bizimodua eta, orokorrean, horien unibertsoa aztertu behar da. Esate baterako, gure gaiari atxikirik, interesgarria da ikustea emakumeek hizkuntzaren eta kulturaren irakaskuntzan, esparru horretan, eurek sorturiko unibertsoan, zer-nolako eragina izan duten hizkuntzarekin loturiko aspektuetan.

Eta honi dagokionez, alde batetik, *Muted groups* edo talde mutuen teoria aurkitu dugu. Talde mutuak deitzen zaie errealitatea talde dominatzaileek ez bezala jasotzen eta adierazten dutenei. Hauek eredu alternatiboak sortzen dituzte, testuinguru jakin bat

interpretatzeko eta hartan eragiteko moduei dagokienez. Esaterako, Dolores Juliano antropologoak adibidetzat jartzen du, etxean eta emakumeen eskutik etorri diren ipuinak, kantuak eta kontuak endokulturalizaziorako tresna boteretsuak izan direla. Eta emakumeak talde mutu legez hauetaz baliatu izan direla euren mundu ikuskeraren elaborazio zatikatu bat, behintzat, ahalbidetua ikusteko. Beraz, hizkuntzan islaturik ageri zaigu emakumeen berezko ikuskera hori.

Eta *index* izena hartzen duten hizkuntzaren aspektu-osagaiek hizkuntza eta testuinguru sozialaren arteko harremana erakusten dute. *Indexek* aukera ematen digute hizkuntza baten bizitzari loturiko gertakarien interpretazioan murgiltzeko.

Ideologies of languages izenez ezagutzen den korronteak, berriz, hizkuntzarekin loturiko aspektuek, botere-kontuekin edota ezberdintasun sozialekin loturiko aspektuekin zein erlazio duten aztertzen du.

Community of Practice (CofP) terminoari erreparatzen badiogu, komunitateak egiten denaren arabera sortzen direla adierazten du. Hau da, praktikak edo egite konkretuek adierazten dute pertsonen taldekide izateko desira. Praktikak, hizkuntzarekin loturiko aspektuekin zerikusia duten jokamoldeen zeharkako aipamena izaten dira. Beraz, *CofP* nozioak bide ematen du ikusteko hizkuntzarekin loturiko aspektuek zein funtzio garrantzitsuak duten pertsona bat komunitate jakin bateko kide izatera heltzeko prozesuan. Hala nola, mediku, arkitekto edota abokatuen hizkerak arreta piztu du Hizkuntza Antropologian, lanbide hauen hizkerak pertsonen errealitatean eragin zuzena dutela uste da-eta. Bestalde, hizkuntza eta generoaren arteko erlazioen azterketan nozio hau erabili izan da. Izan ere, *Speech community*ren aldean, hizkuntza bera barik, hiztunarengan jartzen duelako arreta eta aniztasunarekin loturiko aspektuak hartzen direlako kontuan.

Beraz, Hizkuntza Antropologiaren teoria berriek hiztunak eta euren berezko izaera hartzen dute kontuan. Baita, botere-guneetatik kanpo dauden komunitate edota hiztunak. Edota praktika jakin bati loturiko komunitateak...Eta hauek hizkuntzarekin duten harremanari jartzen diote arreta.

Emakumeak eta Euskal irakaskuntza lan honetan, emakumeak euskal gizartean jokatu duen paperaren zati bat aztertu dut. Hain zuzen ere, euskaraz eta euskara berreskuratzeko egin den irakaskuntzan. Beraz, hizkuntza gauzatu deneko esparru bat, irakaskuntzarena, genero ikuspegitik aztertzen saiatu naiz. Eta esparru jakin horri dagokionez, emakumeen izaera eta jokaerak deskribatzen saiatu naiz.

Lan hau deskriptiboa da, eta ez dut gorago aipaturiko kontzeptuetan sakondu, emakumea eta euskal irakaskuntza historikoki eta kulturalki eskutik helduta joan direla erakutsi nahi izan dut. Horrela, aztergai geratuko lirateke horren eta hizkuntzarekin loturiko aspektuen arteko harremanak.

2. EUSKAL EMAKUMEA, BASERRIA ETA HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA.

Atal honen izenburuan agertzen diren hiru kontzeptu horiek loturik agertu izan zaizkigu euskal kulturari. Emakumearen irudia baserriari edo etxeari lotua izan da, eta han burutu du kultura eta hizkuntzaren transmisioa.

Tradiziozko euskal gizartean, emakumearen ardurapean zeuden: umeen zaintza eta heziketa, jatekoa ipintzea, oilategiko oiloak zaintzea, baserriko produktuak saltzea, familia osoarentzat beharrezko ziren arropak josi eta erostea, etxeko altzariak erosi, zaindu eta garbitzea. Gizonezkoen lana, berriz, soroko eta kortako ardura izaten zen.

Gizonezkoek baserritik kanpoko harreman sozialak egiteko aukera izaten zuten. Lagun artean egoteaz gain, adibidez, auzoari zegozkion batzar eta bestelako erabaki guneetan parte hartzen zuten. Emakumeek, berriz, etxearen ardura izanik gehienetan etxean bertan geratu behar izaten zuten.

Beraz, esan daiteke emakumeak eguneroko bizimodua baserrian eta baserri inguruan egiten zuela. Baserritik ez zen irteten elizara, hilerrira, auzoko gaixoren bati laguntzera joateko edota auzolanean aritzeko baino. Noizean behin azokara joaten zen etxeko produktuak saltzera. Baina, egunerokoan baserri ingurua zen bere espazioa, eta, bereziki ezkaratzea edo sukaldea.

Sukaldean jatekoa prestatzeaz gain, aisiarekin lotutako jarduerak egiten ziren. Esate baterako, lan-aldia amaitu ondoren, beheko suaren inguruan eseri eta kontu-kontari aritzen ziren familiako

kideak. Tarte horretan, ipuinek, mitoek eta kondairek leku handia izaten zuten eta horien bidez, euskara irakasten zen, baita balore sistema eta mundu-ikuskerak jakina ere.

Gune horretan euskararen transmisioan emakumeak egin duen ekarpena handia izan da mendeetan zehar. Izan ere, euskarak gaur egun baino egoera oparoagoak bizi izan baditu ere, inguruko hizkuntzen, gaztelera eta frantsesaren aldean beti izan da hizkuntza gutxitua. Ahoz transmititu dena eta idatzizkoan ia lekurik izan ez duena. Beraz, prestigio edo botere guneetatik kanpo egon izan da beti. Eta horrek zaildu egiten du hizkuntza baten biziraupena. Baina, euskara gaur egunera iritsi da eta iraun badu, baserrietan egiten zen etenik gabeko transmisioari esker izan da.

Eta, hain zuzen ere, emakumeak ziren transmisio hori ziurtatu behar zutenak. Izan ere, eurena zen umea hazi eta hezitzeko ardura. Haren inguruan ibiltzen ziren, amak, amamak, edota izebek umeari jaten ematen zioten, berarekin jolasten zuten, oinez ibiltzen irakasten zioten eta zelan ez, berba egiten ere bai.

Umeei berba egiten irakasteko emakumeek hainbat bide erabiltzen zituzten. Barandiaranen hitzak¹ aintzat hartuz, umeari asko hitz egiten zioten. Eta hitzak behin eta berriz errepikatzen zizkieten, hurbileko esperientziekin loturiko hitzak irakasten zizkieten, gauzak eta hitzen arteko harremana erakutsiz edota kantuak erabiliz.

Hortaz, euskararen irakaskuntzarako teoria eta metodologia oso bat zen baserrietan emakumeen eskutik garatzen zena. Eta ez da harrizkeoa euskal irakaskuntza formalaren hastapenak etxeetan eta emakumeen eskutik etortzea, ondoren datorren atalean ikusiko dugun moduan.

¹ Del Valle, Teresa (1997) *Las Mujeres en Euskal Herria. Ayer y Hoy*. 13.orrialdea

3. EUSKAL EMAKUMEA, ESKOLA ETA HIZKUNTZAREN BERRESKURAPENA.

Arestian aipatu bezala, gure hizkuntza gutxituak baserrietako beheko suaren txinpartei esker biziraun zuen. Eta, batez ere, beheko su horren zaintzaile ziren etxeko emakumeei esker. Baserritik haratagoko mundua, gehien bat gizonezkoena zen. Eta areago, prestigio edo gizarte maila altuko mundua, gazteleraz eta frantsesez zen. Emakumeak izan ziren familia barruan, etxean, hizkuntza ahoz transmititzeko, irakasteko eta mantentzeko arduradunak.

Hizkuntza idatzia (idazlan gutxi batzuk, salbu) eta irakaskuntza, gazteleraz eta frantsesez baino ez zen existitzen Euskal Herrian. Gainera, eskolan itzelezko zigorrak izaten zituzten euskaraz berba egiteagatik, zigor kasuetan ezagunena "eraztunarena"² izaten zelarik. Hezkuntza arrotza zen jaun eta jabe euskal eremuan, eta horrek, dudarik gabe, hizkuntzaren etengabeko galerarekin zerikusia izan zuen.

Horretaz oharturik, XX. mende hasieran euskal eskolaren aldeko lehen bultzadak egin ziren. Hala ere, badirudi XX. mendea baino lehenago ere bazegoela erdal irakaskuntzak zekarren galerarekiko kezka. Esaterako, Antonio Pascual Iturriaga (1778-1851) pentsalaria aipatzen du Idoia Fernandezek *Gerraondoaren historia luzea: euskal eskolagintza* lanean aitzindari moduan, zeinetan Mikel Zalbideren *Euskal eskola, asmo zahar bide berri* lanetik hartutako hitzok aipatzen dituen:

"Oso argi ikusten zuen berak garai hartako irakas-sistemak haurrak efikazago "hezi" eta "hizkuntza handirako" trebatu baino zerbait gehiago egiten zuela:

² Zigor hau euskaraz berba egiten zuenari eraztuna janztera behartzean zetzan. Ondoren, eraztunarenak ikaskideren bat euskaraz berba egiten entzuten bazuen irakasleari esan behar zion. Eta horrela eskola astea amaitzean eraztuna zeukanak jipoiak eta zigorra jasaten zuen.

bertako hizkuntza, eta horrekin euskaldungo osoa, nahi eta nahi ez galbidera eramán".

Hortaz, bazegoen euskaldunen artean hezkuntza arrotzek ekar zitzaketen ondorioekiko kezka. Gainera, denborak aurrera egin ahala, umeen eskolaratzea haziz zihoala, ondorio horiek are latzagoak ziren.

Hala ere, euskal eskolaren proiektua edo ikastolak ez ziren behin betiko gauzatuko xx.mendearen bigarren zatira arte, gertaera historikoek horrela agindu zuten-eta. Bien bitartean, emakumeak etxeko eremuan beheko suaren inguruan auspoari eragiten jarraituko zuen hizkuntzaren suak bizirik iraun zezan. Eta, hain zuzen ere, etxe eremu horretan sortuko zituen euskal irakaskuntzaren lehenengo oinarriak. Eta oinarri horietatik abiatu sortuko ziren egun ezagutzen ditugun ikastolak.

Beraz, atal honetan emakumeek euskal irakaskuntzaren sorreran egindako lana agertu nahiko nuke. Izan ere, hauek izan ziren, batez ere, lehenago aipatu bezala, euskarazko irakaskuntzaren lehen oinarriak jarri zituztenak. Euskal irakaskuntzaren hastapenetan eratu ziren etxe-eskoletan andereño aritu zirenak , eta ondoren, ikastolen hastapenetan buru-belarri ibili zirenak.

Hastapen horiek aztertzean, emakumeek jokatu zuten paperaren arabera egin dut epeen banaketa. Lehenengo epealdian, gizartean emakumearen esparrua familia barrukoa da eta bera da esparru horretan hizkuntza eta kultura transmititzeko arduraduna. Bere lana, beraz, tradizioa mantentzeari begirakoa da. Eta andereñoen lana ere horixe izan zen. Hau da, lehenengo epealdian andereñoen lana hezkuntza eta hizkuntza arrotzen erasoaren aurrean euskal hizkuntza eta kultura mantentzea izango litzateke. Epealdi honetan garrantzi berezia izan zuen erlijioaren transmisioak ere. Emakumeak galzorian zegoen hizkuntza eta kulturaren hezitzaile edota irakasle izan ziren ikasle kopuru murriztuko etxe-eskoletan. Etxe-eskola hauetan familia

euskaldunetako umeak euskaraz alfabetatzen ziren eta adin batetik aurrera etxe-eskola utzi eta erdal ikastetxeetara jo behar izaten zuten.

Bigarren epealdian, berriz, emakumea irakaskuntza euskaldunaren eragile moduan ageri zaigu, mundu modernoan eskola eredu berri eta zabalaren motor bezala. Eskola eredu berri honi ikastola deritzo, eta honen helburua, lehenagoko euskara, kultura eta tradizioa mantentzea baino gizarte berrian eskolaren bidez euskara txertatzea litzateke, euskararen berreskurapenari begira jarriko ziren. Beraz, umeak ez ziren zertan familia euskaldunetatik etorri, ikastolaren helburua umeak alfabetatzeaz gain euskalduntzea ere baitzen. Era berean, erlijioak ez zuen aurreko garaietan besteko garrantzirik. Hau da, ikastoletako andereñoak garai berrietara egokitu ziren eta berrikuntza horretan oinarritu zen ikastolek lortutako arrakasta. Ikastolen arrakasta edo gizarteratze horrek, era berean, euskararen berreskurapenerako beharrezko tresnak abian jartzea ahalbideratu zuen.

3.1. Emakumea hizkuntzaren eta tradizioaren mantentzaile.

Lehenengo epealdi hau bereizteko, gertaera historikoen araberako banaketa baino, emakumeak, euskal gizartean, oro har, eta euskal irakaskuntzan, bereziki, jokatutako papera hartu dut kontuan. Hala ere, esan behar da denbora tarte honetan, ondoren aztertuko dugun moduan, euskal komunitatea astinduko zuten gertakariak izan zirela, gerraurrean: abertzaletasunaren pizkundea, eta honekin batera euskal irakaskuntzarako proiektuen formulatzea eta ikas-materialen bat edo besteren sorkuntza; Primo de Riveraren diktadura eta ondorengo errepublika garaian eskola saiakera berriak eta euskal

eskola nazionalaren formulazioa. Gerra zibila eta honek suposatu zuen ondorengo debekualdi latza. Garai honetan, euskal kutsua zeukan edozer errepresio bidez isilarazia eta zapaldua izaten zen. Baina, sasoirik latzenetan ere, hainbat emakumek edo andereñok, eskolak euskaraz ematen jarraitzen zuten, ezkutuan, etxe-eskoletan. Emakume hauek izango ziren, hain zuzen ere, gerraurreko euskal eskola nazionalaren proiektutik geroagoko ikastoletara loturiko katebegi ezinbestekoa.

Hala ere, ezin dugu ahaztu tradizioz emakumeari leporatzen zitzaizkion eginbehar eta esparru murriztuen zamak hauen lanean izandako eragina. Izan ere, Aranaren nazionalismo tradizionalak emakumeari atxikitzen zion betebeharra, familia eremuan kokatzen zen, bera baitzen familiaren ardatza eta arrazaren gordeleku.

Ondorengo nazionalismoaren joera berrietan, emakumea pixkanaka-pixkanaka sozializatze bidean hasi zen. Emakumeek hartu zuten gazte eta umeak euskaldun giroan hezitzeko ardura. Heziketa ez formalean, poxpolin eta dantzari taldeak, antzerki-taldeak, euskal kulturaren inguruko lehiaketak sortu eta antolatuz. Eta heziketa formalari dagokionez, eurek izan ziren lehenengo etxe-eskoletako arduradunak.

Etxe eskoletako giroa senide artekoa bezalakoa izaten zen: hurbiltasuna, klase giroa, ama eta andereñoen arteko harreman estua... Sozializazio hau, hain zuzen ere, nazionalismoaren familia handian kokatzen zen. Eta familia handi honetan heziketaren ardura, familia txikian bezalaxe, emakumeena zen.

Badirudi eskolak emakumeei eremu publikoan aritzeko aukera eman ziela, baina honek ez zeukan emakumeen askapenarekin zerikusirik. Izan ere, etxe-eskoletan-eta zebiltzan andereñoen ezaugarriak honakoak ziren: "irakaskuntzari zeharo dedikatutakoak, sinesmen erlijioso handikoak, serioak baina era berean gozoak, kanpoko ohiturak errefusatzen zituztenak, eta eredugarriak izan behar

zutenak”³. Beraz, ezaugarriok irakurrita zera ondoriozta dezakegu, emakume hauek tradizioaren agindupean, isil-isilean, euskal irakaskuntzaren aldeko inurri lana egin zutela.

3.1.1.Gerraurrea

Gorago aipatu dudan legez, xx. Mende hasieran eskola hizkuntza eta hezkuntza arrotzak txertatzeko tresna zelako kezka nabaria zen euskal komunitatean. Izan ere, aurreko mendean 1857.urtean, hain zuzen ere, estatu espainiarrean Moyano legea ezartzeak, lehenago eskolek zeukaten autonomia ezabatu zuen. Lege honen bidez, estatu espainolak, estatu frantziarrean zegoen ereduari jarraituz, hezkuntza sistemaren zentralismoa eta homogenizazioa bilatu zituen. Irakasleriaren izendapena, esaterako, estatuaren esku geratzen zen. Baita eskolen kopurua, irakatsi beharreko gaiak, gaztelaniaren inposaketa... Beraz, lege honek Euskal Herriko eskoletan hizkuntza eta kultura arrotzak inposatzea ahalbideratu zuen.

Baina, estatuen aldetik zetorren zentralismorako joerak bazuen erantzunik euskaldunen aldetik. XIX.mendearen bukaera, eta XX.mendearen hasiera horretan euskal pizkundetzat hartu den garaian, hainbat ekimen aurki baititzakegu euskal kultura eta hizkuntza erreibindikatu eta bultzatzeko: aldizkarigintzan, literaturan, kultur zabalkunderako kanpainetan...

Esaterako garai honetakoak dira: “Asociación Euskara de Navarra” (1877) eta bere “Euskara” aldizkaria; Gasteizko “Revista de las Provincias Euskaras” (1878-1879), Donostian Jose Manterolak hasitako mugimenduaren ondorioz ziren “Consistorio de los juegos florales euskaros” eta “Euskal –Erria” aldizkaria (1880-1918) eta urte

³ FERNANDEZ , I. (1994) *Oroimenaren hitza Ikastolen historia* . UEU. Bilbo. 273.orrialdea.

batzuk beranduago R.M Azkueren eta S.Aranaren eskutik egin zen kultur ekarpena⁴.

Pizkunde garai horrek XX.mendeko lehenengo hiru hamarkadetan ezagutu zuen loraldia. Eta Aldundietan zeuden indar nazionalistek ere bultzatu zuten, euskararen aldeko hainbat neurri harturik. Hala nola, hezkuntza arloari dagokionez, institutoetan eta eskoletan euskarazko katedrak sortzea bultzatu zen. Edota Gipuzkoako "Junta de Instrucción Primaria" zeritzonak Gipuzkoako eskoletan irakurketan lehenengo hizkuntza euskara izan zedin agindu zuen. Eta Junta honek eginkizun honetarako propio argitaratu zuen *Iracurtzaren asierac* izeneko testu liburua⁵. Neurri hauek bere txikitasunean badute garrantzirik, eskolan euskara txertatzeko lehenengo ahaleginak izan baitziren.

3.1.1.1. Euskal irakaskuntzaren lehen formulatzeak

Hezkuntza arloan euskara eta euskal kultura sartzeko ahaleginak hainbat izan ziren. Eta testuinguru horretan kokatzen da 1918an Oñatin burutu zen Eusko Ikaskuntzaren lehenengo batzarra.

Batzar horretan hainbat ekarpen eta proposamen egin ziren hezkuntza sistemari dagokionez. Esate baterako, ikasleek ama hizkuntzaz ikasteko zuten eskubidea eta beharra azpimarratu ziren . Arazoa banakoen eskubideetan eta elebitasunean oinarritutako arrazoi psikopedagogikoetan argudiatuta geratu zen.

Baina, proposamen horrek berehala izan zuen estatuaren aldetiko erantzuna. Eta erantzun hori argudio hauen guztiz kontrakoa izan zen. Izan ere, estatuak bere egitura politiko eta administratiboen

⁴ FERNANDEZ, I. (1994) *Oroimenaren hitza Ikastolen historia* . UEU. Bilbo. 16-17.orrialdeak.

⁵ FERNANDEZ, I. (1994) *Oroimenaren hitza Ikastolen historia* . UEU. Bilbo. 17.orrialdea.

kohesioa zuen helburu eta horretarako hezkuntza sistema gaztelera eta espainiar kultura sartzeko gakoa izan zitekeen.

Hala ere, euskaldunen artean kezka hor zirauen eta hainbat eskola saiakera egon ziren. Batzuk, eskola sistema ofizialaren bidetik eginikoak: Auzo eskolak eta Nekazal eskolak. Besteak, sistema ofizialetik kanpo egindakoak: Euskal ikastetxeak, Euskal eskolak eta Ikastolak.

Sistema ofizialaren bidetik egindakoei dagokienez, Bizkaia eta Gipuzkoan esperientzia batzuk hasi ziren arren, estatuaren aldetik berehalako erantzuna etorri zen eta debekatu egin zituen.

Saiakera hauek Bizkaiko aldundiak bultzaturik egin ziren Landeta eta Elizalderen eskutik ⁶. Alde euskaldunetan maisu euskaldunak bidaltzen ahalegintzen ziren eta euskaraz ikasteko bideak errazten ziren.

Auzo-eskola hauek 1919tik 1938ra arte iraun zuten Bizkaian, baina, lehenengo mementotik euskararen kontrako indar politikoen helburu bilakatu ziren. Beraz, ez zuten bizialdi erraza izan.

Sistema ofizialetik kanpo egindakoei dagokienez, aldiz, diru iturri pribatua erabili zen eta askotariko esperientziak izan zirela esan behar da. Euren artean, heterogeneotasun handia nabari zen eta gehienek ez zuten askorik iraun.

Lehenengo aurrekari moduan Donostian eta Bilbon zabaldu ziren Euskal ikastetxeak ditugu. Hala nola, R.M Azkuek Bilbon 1896an zabaldu eta 1899an itxi zena, 1908an Plaza Barriko euskal eskola eta geroago 1914an *Euzko Gaztedik* Colon de Larreategi kalean zabalduakoa.

⁶ Politikari nazionalistak. FERNANDEZ, I. (1994) *Oroimenaren hitza Ikastolen historia*. UEU. Bilbo. 19. orrialdea.

Donostian, berriz, Miguel Muñoaren esperientzia izan zen gerraurreko saiakera hauen artean gehien iraun zuena (1914-1936) eta Tolosako ikastolaren (1920-1930) eredu izango zena. Ez dugu ahaztu behar, Primo de Riveraren diktadura izan zela tarte horretan (1923-1930) eta inspektzioaren bidez euskara eskoletatik deuseztatzeko estutu egiten zela.

Baina, Muñoaren esperientzia hauen aurretik, Donostian ba omen zegoen beste ikastolatxo edota etxe-eskola bat Elena Gametxo Goikoetxea emakumezkoa buru zuena. Emakume honek 9 urtera arte izaten zituen umeak Loiola kaleko etxe-eskolan. Eta badirudi gerraurrean emakumeek gidaturiko antzeko esperientziak egon zirela. Baina, eskola mota honek benetako indarra gerrostean hartu zuen Elbira Zipitriarekin.

1930ean errepublikaren etorrerarekin euskal eskola nazionalerako proiektua hezur-mamitzen hasi zen, horretarako baldintzak sortu baitziren.

Esaterako, Kataluniako Elebitasun Dekretuak (1931/04/29) Euskal Herri osoan autonomia eta elebitasunaren aldeko kanpainak egitea bultzatu zuen.

Eusko Ikaskuntzak "Elebitasunaren kongresua" burutu zuen eta bertara 600 bat maisu eta maistra hurbildu ziren. Elebitasuna martxan jartzeko deialdiak udaletxeetara igorri ziren eta horren bidez euskal eskola gehiago antolatu ziren: Errenteria, Plazentzia, Arrasate, Iruña, Lizarra, Elizondo, Gasteiz....

Baina, aurreko esperientziak eta hauek kontuan harturik euskal irakaskuntzaren lehen haziok bi ezaugarri ideologiko zituzten. Bata abertzaletasuna (euskal kultura eta hizkuntza) eta bestea, erlijiotasuna.

Eta 1931n Errepublikak indarrean jarri zuen konstituzioaren 25.artikuluarekin Elizaren erakundeei irakaskuntza eskubidea kendu zitzaizen.

Euskal Herrian Elizak zeukan jarrera eta irudia estatuan baino herrikoiagoa-edo zen. Izan ere, Euskal Herrian sinesmen erlijioso handia izateaz gain, Elizak Lizarrako estatutuari⁷ laguntza eman zion. Beraz, Errepublikak lege hori indarrean jartzeak Euskal Herrian erreakzio ugari ekarri zuen.

“Estatuaren bidetik euskarari eta euskal irakaskuntzari gero eta konpetentzia eta leku gutxiago gelditzen zitzaiola ikustea eta legearen bidezko laizismoaren zabalkundea izan ziren, gure ustez, euskal eskola berri honen sorrerari lagundu zioten koiunturak”⁸

Eta testuinguru horretan, laizismoari erantzuteko beharrez-edo sistema ofizialetik kanpo legokeen euskal eskola nazionalaren (Euzko Ikastola Batza) proiektua eraikitzen hasi ziren.

Proiektu horren ideologoak Elias Gallastegi⁹ eta bere lagunmina Jose de Villalonga izan ziren. Eta antolatzaileak Euzko Gaztedia eta Emakume Abertzale Batza.

Esperientzia horrek lau urte baino ez zuen iraun 1932tik 1936ra, baina, ekarpen pedagogiko eta eskola nazional baten eraketa eredu moduan, balio handikoa izan zen. Alde batetik, gerra bitartean euskal kolonietan eredu hau jarraitzen baitzen eta, bestetik, gerrosteko ikastolen mugimenduaren egituraketan eredu honekiko antzekotasunak ageri baitira.

⁷ Udaletako ordezkariak 1931an Lizarran onartutako autonomia estatutua, zeinetan hasiera batean hegoaldeko lau probintziak biltzen zituen eta euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen zuen.

⁸ FERNANDEZ, I. (1994) *Oroimenaren hitza Ikastolen historia*. UEU. Bilbo. 25.orrialdea.

⁹ Politikari Bizkaitarra (1892-1974) Euzko Gaztediko lehendakari izan zen. Emakumeek politikan izan zezaketen paperari garrantzia eman zion.

Ikasle kopuruari dagokionez, berriz, esanguratsuak dira honako datuok: 802 ikasle 9 eskolatan banatuta eta horretaz gain, 20 irakasle formatu zituzten proiektua aurrera ateratzeko.

Euzko Ikastola Batzaren iparra Jose de Villalongaren "Informe de la gestación del primer ejercicio, presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza: 1932-33" dokumentuan ageri zaigu.

Dokumentu honetan bi zutabe nagusi ageri dira: batetik, erlijiotasuna eta bestetik hezkuntza nazionala. Hizkuntzaren ikaskuntzari dagokionez, aldiz, elebitasunaren proposamena egiten da. Umeen ama hizkuntza finkatu eta ondoren ekitea bigarren hizkuntzaren ikasketari. Hauxe baitzen beste eskoletan egiten ari zena eta European zeuden elebitasunaren teoriak aholkatzen zutena. Hala ere, egoera ez formaletan ume erdaldunak euskara erabiltzera bultzatzen ziren. Helburua euskaltasunean zehaztuta baitzegoen.

Gainera, hezkuntzaren ardura gurasoengan zehazten zen eta klase sozial guztientzako eskola eredia izan nahi zuen. Beraz, hezkuntza sistema oso bat planteatu zen, bere ezaugarriak honakoak zirelarik: nazionala, kristaua, "pribatua" eta "guztientzakoa".

Horretaz gain, Villalongaren txostenean arlo pedagogikoari dagozkion hainbat berrikuntza planteatzen dira. Euskal eskola hauetako gaiak, esaterako, programa ofizialekoen gain, Euskara, Erlijioa, Euskal Geografia eta Historia ziren.

Gainera, gaika egin beharrean, era globalizatu batean irakasten zituzten. Erabiltzen zen metodoa ez zen eskola tradizionalakoa, dena memoriaz ikastea, baizik eta, era globalizatuan eta ikas sekuentzien bidez (ulertu-landu-berrikusi-idatzi-buruz ikasi) irakasten baitzen.

Aipatzekoak dira, era berean, musikari eta erritmoari ematen zitzaion garrantzia eta espazioaren antolamenduari. Esaterako,

ikasgelen orientazio egokia eta osasungarria azpimarratzen da eta altzariei dagokienean ere, baserrietako mahai handien erabilera aholkatzen da. Azken hauek umeak familia giroan hezitzeari begirako neurritzat jo ditzakegularik.

3.1.1.2. Emakume Abertzale Batza eta euskal irakaskuntza

Gerraurreko euskal irakaskuntzaren lehen saiakerak aztertu ondoren, ezin dugu emakumeek horretan egindako lana albo batera utzi.

Izan ere, euskal irakaskuntzaren hastapenetan ageri zaizkigun pentsalari eta ekintzaileen izenak, gehien bat, gizonezkoenak dira. Baina, historiari erreparatuz gero, kontura gaitzke heziketaren arloan emakumeak izan zirela benetako arduradunak, bai, hezkuntza informalean, bai, formalean.

Hala ere, zehaztasunetan sartu aurretik komeni da XX.mendearen lehenengo hamarkadetan emakumearen egoera zertan zen gogoratzea.

Izan ere, nazionalismo tradizionalak emakumearen papera familia barruan euskalduntasuna eta tradizioa transmititzera mugatzen zuen. Emakumearen funtzioak garrantzitsuak ziren nazionalismoaren ikuspegitik. Baina, hierarkia baten barruan eta partaidetza edo ekinbide politiko eta publikoetatik kanpo. Ongiegitari edo benefizientziari loturiko lanetan soilik aritu zitezkeen.

Esanguratsua da Tene Mujikak¹⁰ honi buruz *Miren Itziarri idazkiak eta olerkiak*¹¹ lanean idatzitakoak:

"Politika" emakumientzat ez dala; onetan oso-osoan zeurekin nago; nik ere ez dei ondo arkitzen "politika" era eriketa emakumientzat; batetik, izanik "politika" ustearen ondorea, eta ustea (gai onetan beintzat) eri-zaintzazko jakintzaren ondorea, arazo au emakumioi ez dagokigu, gizasemeai bezin ondo; abek bezin adimen argidunak, edo beintzat agitz ain ikasiak ez geralako; eta bestetik, senditik kanporako ardura abek, emakumea, bere gizako bearkun ingurutik aldentzen dutelako; eta au, sendiyarentzat kaltegarri izanik, gizartearen galbide litzakelako"

"Baña abertzaletasunak, Miren Itziarri, ez du "politika" kin zer ikusirik.

Au uste baten ondorea dan bezela; abertzaletasuna biozkada baten ondoreada, maitasun bat da; eta alde ontatik, iya-iya ausartuko nintzake esatera gizasemeai baño ebeto dagokigula abertzaletasuna emakumiai; adimen argiya ayen ogasuna ba-da, maitasuna gurea dalako, emakumiena dalako"

Beraz, aurrekoa irakurrita emakumeek abertzaletasunari sentimenduen aldetik egin ziezaioketen ekarpena. Gizonezkoek, aldiz, arrazoiaren bidetik edota politikaren bidez.

20.hamarkadatik aurrera, baina, Emakume Abertzale Batzaren sorrerarekin aldaketa batzuk etorri ziren emakumeen esparrua apur bat zabaldu zelarik eta esparru pribatutik publikorako lehen urratsa eman zutelarik.

Baina jo dezagun Emakume Abertzale Batza mugimenduaren nondik norakoak azaltzera. Emakume Abertzale Batza 1922ko apirilean sortu zen Euzko Alderdi Jeltzalearen barruko emakumeen elkarte moduan. Elkarte honek aldi bitan garatu zuen bere lana: 1922tik 1923ko irailera, Primo de Rivera-ren diktadurara arte, debekatua izan baitzen eta diktadura desagertu zenetik, errepublika garaian 1931tik 1936ko gerratera arte¹².

¹⁰ Deba (1888-1981) EABko partaidea. *Euzko Deya* aldizkarian hainbat idazki argitaratu zituen. 1975ean Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

¹¹ http://www.leuskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/emabatza.pdf

¹² http://www.leuskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/emabatza.pdf

Elkarte honen eragilea Elias Gallastegi izan zen, Euzko Gaztediko lehendakaria eta Euzko Ikastola Batzaren ideologoa. Honek Irlandako Sinn Féin mugimenduko Cumann nan Ban emakumeen erakundea hartu zuen eredutzat.

Emakume abertzaleek EABren bitartez zuten asmoa, gizonezko abertzaleek politika-arloan egiten zuten lana osatzea zen. Bere manifestuan hiru helburu aipatzen ziren, euskal nazionalismoaren esana zabaltzea (agitazioa eta propaganda lanak) ongiegite edo benefizientzia lanak egitea eta kultur mailako ekintzak burutzea. Hauei dagokionez honakoa zioen manifestuak:

“Esta institución se propone cultivar, con todo cariño, la educación cultural del pueblo, estableciendo cuantos organismos sean precisos, para que nuestros hermanos y especialmente los niños, desarrollen sus facultades en su preparación para el porvenir, dentro de un ambiente patriótico.

A este efecto creará clases y fundará escuelas para niños, fomentará su literatura apropiada con cuentos, narraciones, lecciones, etc.; iniciará el teatro infantil; cultivará su inteligencia con clases de solfeo y piano; ordenará sus aficiones con grupos de hilanderas, ezpatadantzaris y juegos propios; creará el amor a su lengua, estableciendo clases de euzkera, y preparará a la mujer patriótica con enseñanzas prácticas, labores domésticas etc..”¹³

Euskal kulturaren eta euskararen irakaspenean arreta berezia jartzen zuen, familia barruko heziketa ez formalean eta instrukzio formalari dagokionean ere bai:

“Debe tener un concepto verdadero e instruir en él a sus familiares, sobre todo a sus hijos, en las nociones de Patria, en la historia de Euzkadi, de sus características, de su derecho, de sus aspiraciones nacionales (...). Que sus hijos conserven, fomenten, aprendan el euzkera. Esta es la actuación más directa e inmediata y de más fruto en definitiva (...).

¹³ FERNANDEZ, I, (1994). *Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian*. Donostia. Jakin. 83.zbk. (34.orrialdea)

Si sabe el euzkera, fomentarlo, no hablar en erdera sino por necesidad. Hacer ambiente euzkeldun (...).

Hacerse profesora, a cada momento, del euzkera, procurando difundirlo”¹⁴

EABren lehenengo aldia Primo de Riveraren diktaturak eten zuenez, bigarren aldia, errepublika garaian (1931-1936), izan zen, batez ere, erakundearen sendotze eta hazkunde aldia.

Policarpo de Larrañagak ematen dituen datuen arabera Hego Euskal Herrian 28.500 emakume bazkide egon ziren (Bizkaian 15.000, Gipuzkoan 10.000, Araban 1.500 eta Nafarroan 2.000).

Eta hezkuntzari lotutako datuei dagokienez, honako hauek ematen ditu: Euzko Ikastola Batza, Emakume Abertzale Batzak eta Euzko Gaztedik antolatutako Ikastoletako maistra guztiak (35) EABko afiliatuak ziren . Auzo-eskoletan eta bestelako eskoletan lan egiten zuten hainbat maistra ere EABko partaideak ziren (200etik 150 baino gehiago auzo-eskoletan; zehaztu gabeko kopuruan udal eskoletan). Eta Donostia eta Tolosako Euskal Ikastetxeetan aritu zirenak denak ziren emakumezkoak. Guztira 500 maistra eta 25.000 umeren gaineko eragina.¹⁵

Hezkuntza ez formalari dagokionez ere emakumezkoak izan ziren ume eta gazteei zuzenduriko hamaika ekimenen motorra eta antolakuntzaren arduradunak: euskal dantzak, antzerkia, musika, ibilaldiak, festak...

Horretaz aparte Emakumearen Formazioaren arduradunak izan ziren: maistrak eta erizainak formatzeko eskolak, heziketa orokorreko saioak (erlijioa, nazionalismoa, propaganda, euskal historia, euskara,

¹⁴ FERNANDEZ, I, (1994). *Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian*. Donostia. Jakin. 83.zbk. (35.orrialdea)

¹⁵ FERNANDEZ, I, (1994). *Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian*. Donostia. Jakin. 83.zbk. (36.orrialdea)

folklore...) sukaldaritza, josketa, neskameentzako klase ezberdinak..burutu zituztenak.

Beraz, gerraurreko euskal irakaskuntzaren lehen oinarriak jartzen, eta honekin batera euskararen eta euskal kulturaren zabalkundean lan handia egin zuten Emakume Abertzale Batzako emakumeek. Oinarri horiek gerrosteko etxe-eskolen eraketan, Elbira Zipitriaren ereduari, funtsezkoak izan ziren. Izan ere, gerraurrean sortutako emakume sareak gerrostean aurretik egindako lana ez etetea eta euskal irakaskuntzarekin klandestinoki jarraitzea ahalbideratu zuen.

3.1.2. Gerraostea

Atal honetan 1939tik 1960rako tartea, gutxi gorabehera, hartu dugu aintzat. Izan ere, bitarte honetan diktadurapeko egoera latzean, gerraurreko euskal irakaskuntzaren ezaugarri batzuk aurki ditzakegu.

Genero ikuspegitik ere, euskal irakaskuntzari ekin zioten andereñoak eta, oro har, emakume abertzaleak gerraurreko parametroetan mugitzen zirela ikus dezakegu. Jo dezagun, beraz, sasoi honetako zertzelada batzuk ematera.

Gerra zibilaren (1936-1939) ondoren, Francoren diktadurapean, gerraurrean euskararen gainean egindako lan guztia ezabatu zen. Euskal kutsua zeukan oro jazarria eta zigortua izan zen. Legez eta indarrez euskararen erabilpena eremu murrizetara kondenatua izan zen.

Gerraurrean eskoletan maisu eta maistra aritutako euskaldun gehienei titulazioa kendu zitzaien eta eskoletatik bota zituzten, "rojos-separatistas" etiketapean. Ezin ahaztu horien artean EABko emakume ugari zegoela. Beraz, esan gabe doa, eskolan ere euskararen erabilpena zigortu egin zela. Eskola akulturalizaziorako tresna eraginkorrena bilakatu zutelarik.

1945ean "Ley de Educación Primaria" delakoarekin erregimen frankistak hezkuntza sistemaren ildo zehaztu zuen. Espainiaren gorespena ("una, grande y libre") bultzatzen zuen hezkuntza sistema eratuko zen. Erlijio katolikoaren eskutik zetorrena. Pedagogiaren aldetik, atzerapauso nabarmenak izango zituen: maisuaren autoritarismoa, testu-liburuan oinarritutako metodologia, dena buruz ikastekoa eta indibidualista, eskolan ikaskideen artean elkarlanerako zirrikiturik uzten ez zuena...

Horretaz aparte, hezkuntza sistemak langile kualifikatuak sortu beharrean, lan merkatuaren beharrei baino ez zion erantzungo. Eskola oinarrizko ezagutzak lortzeko eta jarraian lan munduan sartzeko tresna baino ez zen izango.

Oro har, ezaugarri hauek irakurrita gutxi gorabeherako ideia bat egin dezakegu Francoren gerraostean hezkuntza sistema nolakoa zen jakiteko. Urte hauetan Francoren erregimenaren menpean ez zegoen inolako zirrikiturik euskara eta euskal kulturarentzat, zapalkuntza eta desagerrarazteko kondena baino ez.

Testuinguru horretan, EABko kide izan zen Elbira Zipitriak erregimenaren horman zirrikitu txiki bat zabaldu zuen eta euskal irakaskuntzari ahal izan zuen moduan jarraipena eman zion.

3.1.2.1. Elbira Zipitria eta Donostiako etxe-eskolak

Elbira Zipitria 1906an jaio zen Zumaian eta oso gaztea zela Donostiara joan zen bizitzera. Bertan egin zituen ikasketak Maisutza Eskolan eta 1926an "Maestra de Primera Enseñanza" agiria eskuratu eta Donostiako Muñoaren Euskal Ikastetxean hasi zen eskolak ematen.

Bere gazte denboran, abertzaletasunaren eta euskal pizkundearen garai oparoa bizi izan zuen. Eta badirudi bera mugimendu horretan erabat murgildurik egon zela. Izan ere, EABko kidea izan zen eta baita "Euskaltzaleak"¹⁶ erakundekoa ere. Era berean, Muñoaren Euskal ikastetxean irakasle izanik euskal irakaskuntzaren proiektuen berri zuzena zuela pentsa daiteke.

Gerra zibila hasi zenean erbestera joan behar izan zuen. Baina, erbestean ere eskolak ematen eta bestelako ekimenetan jarraitu zuen. Esate baterako, Saran koro eta abesbatza bat antolatu zuen eta neskatilen poxpolin talde bat.

Beraz, esan dezakegu gerraurreko emakumeen mugimenduak sustatutako euskal hizkuntza eta kulturaren aldeko eragileen ezaugarriak biltzen zituen militante sutsu eta kualifikatua izan zela.

Erbestetik itzuli zenean 1942tik 1946ra Donostiako familia ezberdinen seme-alabei euren etxeetan eskolak ematen aritu zen. Familia horiek oso hurbileko zituen.

1946an bere eskola zabaldu zuen Donostian Fermin Calbeton kalean. Izan ere, 1945eko "Ley de Educación Primaria" delakoak zirrikitu bat uzten zuen, eskola modu hori ahalbideratuko zuena. Eta

¹⁶ Euskal prentsa sustatu eta euskara eta euskal literatura hedatzeko sortutako elkartea (Donosita 1927)

Elbiraz gain, beste emakume batzuk ere hasi ziren modu horretan eskolak ematen.

Lege horren arabera, tituludun maisu edo maistrak bere etxean edo horretara egokitutako lekuan eskolak eman ahal zizkien 9 urtera arteko umeei. Gero ume hauek "ingreso" azterketaren bidez hezkuntza arautu eta formalean jarraitu ahal izaten zuten. Oinarrizko heziketarako eskola hauek pribatuak izan zitezkeen, baina, bete beharreko baldintza erregimenaren idearioa jarraitzea zen. Jakina, zailtasunak zailtasun ideario horretatik kanpo zegoen Elbira eta etxe-eskolen hezkuntza proiektua.

Esan behar da, egoera zaila zela kontuan hartuta, Elbiraren etxean ikasle asko aritu zirela. Hauek familia abertzaleetako umeak izaten ziren. Izan ere, Elbira oso ezaguna zen Donostialdeko familia abertzaleetan, hark gerraurretik egindako lana ere ezagutzen baitzuten.

Horretaz gain, ume hauen gurasoak euskara eta euskal kulturaren alde zerbait egiteko premiak motibatzen zituela pentsa daiteke. Bestela, ezingo litzateke ulertu umeak etorkizun garbirik gabeko eskola batera bidaltzeko hautua egitea.

Badirudi Elbiraren atzean emakume sare antolatua zegoela. Donostian 7 bat etxe-eskola zeuden, denak emakumeek gidatuak eta gehienak Elbiraren ereduari jarraitzen ziotenak.

Emakume hauek etxe-eskolez gain, ekimen ezberdinak antolatzeaz arduratzen ziren. Esaterako, ibilalditxoak, meriendak, euskarazko liturgiak eta helduentzako alfabetatze klaseak ematen zituzten.

Ez dago ziur esaterik Emakume Abertzale Batzak funtzionatzen segitzen zuen, baina, bai hainbat emakume Elbiraren ezagunak eta

bere inguruan sare bat eratzen ari zirela eta askok EABrekin zerikusia zutela. Adibidez, Donostiako etxe-eskoletan koordinaturik ageri dira Itziar eta Amele Arzelus, Faustina Karril eta Elbira bera.

Emakume hauek denak zeuden nazionalismo tradizionalaren genero erlazioen diskurtsoan murgildurik. Nahiz eta eremu publikoan egiten zuten euren hezkuntza lana, familian betetzen zuten ama funtzioaren luzapena baino ez zen lan hori. Hain zuzen ere, Familia Nazionalistaren hezkuntza funtzioaren kargu egiten ziren.

Elbiraren sarean zeuden etxe-eskoletan 3 urtetik 9 urtera bitartean aritzen ziren umeak. Bi ziklotan banatuta: 3 urtetik 5 urtera lehenengo zikloa eta 5 urtetik 9 urtera bigarrena.

Lehenengo zikloan titulurik gabeko andereñoak aritzen ziren, nahiz eta Elbirak andereñoen prestakuntzari garrantzi handia ematen zion. Bigarren zikloa emateko, tituludunak baino ez zituen onartzen. 5 urtetik aurrerakoak kurtso formalak baitziren, eduki konkretu eta mailakatuak zituztenak. Ondoren, 9 urte betetzean, umeek azterketa edo "ingreso" gaindituta eskola ofizialetara jo behar izaten zuten.

Azterketa horrek nahiko buruhauste ematen zuen. Etxe-eskoletako umeen ama hizkuntza eta eskolaratze hizkuntza euskara zen. Eta azterketa hori, erdal ikastetxeetarako sarbidea izanik, erdaraz izaten zen.

Beraz, sarbide hori ziurtatzeko maila ematea kezka iturri izaten zen. Kezka horrek andereñoek ahalegin bikoitza egitea eragiten zien eta etxe-eskolek benetan hezkuntza kalitate ona izatea. Ondoren, "Ingreso" horretako emaitzek ere maila ona zegoela erakusten zuten.

Eredu pedagogikoari dagokionez, gainontzeko eskola eta ikastetxeekin alderatuz etxe-eskolak aurrerakoiagoak zirela esan behar da. Francoren hezkuntza sistemak gerraurreko mugimendu pedagogiko aurrerakoiak errefusatu eta eredu tradizionalerako itzulia egin zuen-eta.

Etxe-eskoletan neska eta mutilak elkarrekin hezituak ziren eta ez zen sexuaren araberako bereizketarik egiten. Erabiltzen zen metodologia, Decrolyren¹⁷ ereduari jarraituz, alde batetik, globalizatu zen. Hau da, ikasgaiak era globalizatu batean ematen ziren. Erabiltzen zen testu-liburua, *Xabiartxo*, modu horretan zegoen planteatua.

Bestetik, umea ikas-irakas prozesuaren ardatzat hartzen zen, bere interesak kontuan hartu eta giro naturalean gertatzen zen ikaskuntza prozesua. Esaterako, naturarekiko harremana bultzatzeko, hiritik kanpo ibilaldiak egiten zituzten..e.a. Eskola ofizialetan pentsa ezinak ziren dinamikak burutzen zituzten.

Etxe-eskolen zutabe ideologiakoak, berriz, gerraurreko Euzko Ikastola Batzaren jarraipentzat jo ditzakegu: nazioa eta erlijioa. Alde batetik, zapaldua zegoen nazioa eta bere hizkuntza eta kultura baieztatzen ziren hezkuntza planteamendu honetan. Beste aldetik, erlijiotasuna eta erlijio ohiturak mantentzen ziren. Hala nola, egunero egiten ziren otoitzak, euskarazko dotrina ematen zen...Andereñoek katekista lana ere egiten zutelarik.

Ezin da esan etxe-eskolen sare hau mugimendu handia izan zenik, baina, benetan garrantzitsua izan zela bai. Gerraurrean euskal irakaskuntzaren arloan egin ziren aurrerapenek jarraipena izan baitzuten.

Jenero ikuspuntutik ere interesgarria da ikustea nola emakumeek gerra ondorengo egoera gogorrari aurre egin zioten eta

¹⁷ Mediku eta pedagogo belgikarra (1871-1932). Interesguneen metodoa asmatu zuen. Interesguneen metodoa Eskola Berriaren Mugimenduaren barruan zegoen kokatuta.

proiektu honi haize eman. Hori bai, lan itzela eginez eta ia dedikazio osoz. Euren buruak etengabe formatuz, materialak sortuz, eskolaz kanpoko ekintzak antolatuz, hurrengo belaunaldietako andereñoei ere transmisio lana eginez...

Eta horrela, basamortuan ereindako landareak fruitu ematen hasi ziren. Hain zuzen ere, 3 fruitu mota eman zituen, lehena, euskal irakaskuntzarena, ikastolak sortuz, bigarrena, euskararen berreskurapenarena, hizkuntzarentzat esparru berriak zabalduz eta azkena, emakumearen eragiletzarena, emakume abertzalearen kontzeptua aldatuz.

3.2. Emakumea eta euskal irakaskuntza mundu berrian: ikastolen hastapenak.

Atal honetan, etxe-eskoletatik ikastolak sortzerako bidean gertatu ziren aldaketak azalduko ditut. Alde batetik, euskal gizartearen modernotze aldi bati ekingo zaio eta euskararen inguruan kultur mugimendua sortuz joango da. Beste aldetik, jenero ikuspegitik emakumearen rolen inguruko kontzepzio berri bat gorpuzten hasiko da. Ikastoletako andereñoak euskararen normalizazio eta berreskuratze prozesuaren eragile bihurtuko direlarik.

Gorago aipatu dudanez, Elbirak andereñoen formazioari garrantzi handia ematen zion eta belaunaldi berriei bere metodologia erakusteko urte beteko praktikak-eta agintzen zizkien. Horrela, transmisioa ziurtatzen zuen. Gainera, alfabetatze eskolak ere ematen zituen andereño berrientzat.

Beraz, belaunaldi berriak sartzen hasi ziren etxe-eskoletan eta hauek Elbiraren lana miresten bazuten ere, aldaketa batzuk egitea beharrezkoa zela eta esperientzia hori gehiago hedatu behar zela irizten zioten. Eta horrela, pixkanaka-pixkanaka ikastolen mugimendua sortzen hasi zen.

Era berean, Gizartean aldaketak gertatzen ari ziren, nekazaritza gizartetik industrializatutako gizartera jauzia emanak zeuden.

Estatu espainolean "Plan de Estabilización y Plan de Desarrollo"¹⁸ delakoekin aldaketa ekonomikoak gertatzen ari ziren. Eta Hego Euskal Herrira Espainiatik etorritako etorkin uholdearen eragina ere nabaritzen hasi zen.

Testuinguru horretan euskararen egoera hil ala bizikoa zen. Gazteen artean, beraz, etsipena zen nagusi eta zerbait egin beharra zegoela argi zeukaten.

Garai honetan gertatu zen ETAREN sorkuntza (1959) ere parametro horietan kokatu behar da. ETAREkin batera abertzaletasunaren ikuspegi berriari, sozialagoari, ekin baitzitzaion.

Beraz, gerraostekoak ziren andereñoen belaunaldi berriak nazionalismo tradizionalarekin ezadostasunak agertzen hasi ziren, hauen ustez, ez baitzen garai berrietara egokitzen. Beldurrak edota erosotasunak eraginda andereño zaharren ekinbidea mugatua zela zeritzoten. Eta Elbiraren asmo itxi eta kontrolatuei zabaltasuna eman nahi izan zioten.

¹⁸ Ekonomia politika honek estatu espainolari hazkunde ekonomikoa ekarri zion. Euskal Herriko ekonomiari, berriz, kaltea eragin zion. 1955-1967 artean "errenta per capita"ren honako datuok ditugu: Pais Vasco (-57), Navarra (+7), Madrid (-7), Barcelona (-12), Baleares (+22), Murcia (+10). FERNANDEZ, I. (1994) *Oroimenaren hitza Ikastolen historia*. UEU. Bilbo. 107.orria

Hasteko, eskola antolakuntzari zegozkion aldaketak egin zituzten: eskola ordutegia bi ordutakoa izatetik goiz eta arratsalde izatera pasatu zen. Klase bakoitzean 10 ikasle izatetik 14 edo gehiago izatera pasatu ziren. Eta ume gehiago izateak kalera begira ezagunago izatea zekarren.

Gero, euren esperientzia herrietara ere bideratzen hasi ziren. Eta horrela herrietan euskal eskolatxoak, geroagoko ikastolak, sortzen hasi ziren.

Hedatze mugimendu hauek gerraurreko ideologiadun emakume-sarearen eta belaunaldi berrien arteko bereizketa areagotu egin zuten. Alde batetik, belaunaldi berrikoek, euskal eskola nazionalaren proiektua zuten helburu. Beste aldetik, Elbirak eta bere sarekoek berdin jarraitu zuten, Gobernadore Zibilaren aginduz euskal eskola guztiak legalizatu behar izan ziren arte¹⁹, 1969 urtera arte, hain zuzen ere.

Baina, azter dezagun hobeto belaunaldien arteko bereizketa hori zertan zetzan. Izan ere, hiru mailatan ageri zaigu: maila politikoan, hezkuntza ideologia mailan eta antolakuntza mailan.

Maila politikoan ETArekin sorrerarekin nazionalismoaren barruan kontraesanak sortzen hasi ziren. PNV ordezkatzeko komunitate nazionalistaren lehenengo bereizketa handia izan baitzen. Nazionalismo berria eta zaharra zeuden aurrez aurre.

Nazionalismo zaharrak kanpokotzat hartzen zituen baloreak eta ideiak, esaterako, emakumearen ingurukoak edota kultura arlokoak (gitarra kanpoko musika tresnatzat hartzen zen eta ez zuten onartzen),

¹⁹ Gobernadore zibilak Gipuzkoako eskolen egoera kontrolatu nahian legeztatu gabeko eskolen bukaera agindu zuen. Legeztatzerako Elizaren babesa eskatu zen, kasurik gehienetan. Eliza bakoitzeko parrokoak parrokia ikastola zabaltzeko baimena eskatzen zuen, behar ziren unitateak zehaztuz eta ikastolak debeku eta zigorretatik babestuz.

nazionalismo berriak nazioaren birformulatze batean integraturik ulertzen zituen.

Hezkuntza ideologia mailan, nazionalismo tradizionalan zutabe ideologikoak erlijioa eta naziotasuna izanik, emakumeari zegokion hezkuntza funtzioen bidez hauek transmititzea. Emakumea edo kasu honetan andereñoak, ama funtzioaren luzapena egiten zuen etxe-eskoletan.

" Andereñoak, amatasuna eta erlijiotasuna bilduz, hezkuntza lanari era sasimistiko batez dedikatu beharreko emakumeak ziren (...).Euskal irakaskuntzak, Zipitriaren arabera, bizitza osoa eta inongo salbuespenik gabe ematea eskatzen zuen. Horrexegatik, andereñoak, pintatzen ez zirenak, ezkontzen ez zirenak, klaseetan erlijio formak eta sentimenduen sustraiaketa ziurtatu behar zutenak eta euskarari guztiz emanak ziren emakumeak izan behar zuten."²⁰

Andereñoen irudi horrek erakusten du ondoen nazionalismo tradizionalaren hezkuntza ideologia eta genero diskurtsoa.

Baina, 1960tik aurrera, belaunaldi berriek generoaren eraikuntzan eta andereñoen irudian ezadostasunak agertu zituzten. Erlijioa ere, era bigunago batean azaltzen hasiko zen. Alde batetik, European zeuden liberalismoak, sozialismoak eta feminismoak beste gizarte eredu bat eta generoaren formulaketa berri bat sortarazten ari ziren. Eta gizartean sekularitzea eta erlijioaren bazterketa gertatzen ari ziren. Horrek guztiak izan zuen eragina andereñoen belaunaldi gazteetan.

Antolakuntza mailan, alde batetik, etxe-eskoletan antolakuntza neurtu eta kontrolatua ageri zaigu eta belaunaldi berriekin ikastoletan, aldiz, itxitasun edo kontrol hori ezabatu egin zen.

²⁰ FERNANDEZ, I. (1994) *Oroimenaren hitza Ikastolen historia*. UEU. Bilbo. 116.orrialdea.

Hala nola, ikasleak aukeratzeko mekanismoak ere aldatu egin ziren. Etxe-eskoletan ari ziren ikasleak emakume-sareekin nolabaiteko lotura izaten zuten. Hau da, oso hurbilekoak izaten ziren, eta gehienetan ikasleen artean ere senide lotura ageri zaigu. Ikastolak joera itxi hau baztertu eta zabaltasunean oinarritu ziren, emakume-sareen zirkuluak gaindituz, eta ikasle berriei aukera emanaz.

Horrek antolakuntza modu bat baztertzeaz gain, nazionalismo tradizionalaren familia ideia ere baztertzen zuen hein batean. Eskola familiaren luzapena izatetik edozein gurasok aukeratu ahal izatera igaro baitzen.

Beste aldetik, herrietara zabaldu ziren euskal eskola edo ikastolak. Eta herriratzea "eskola normala" bezala egin zuten: egun osokoa, talde handikoa, agerikoa (ez ezkutukoa, herrietan ezinezkoa baitzen ezkutuan gordetzea) eta nahi zuen gurasoari eskainia. Elbiraren herrietarako asmoa, berriz, hezkuntza ez-formalean oinarritzen zen, poxpolin taldeak eta bestelako kultur ekimenei begirakoa soilik.

Izan ere, ekimen ez-formaletarako ez zen andereño tituludunik behar. Eta ikastolek hasieratik izan zuten zailtasuna irakasle tituludun euskaldunak lortzea izan zen. Hori dela eta, hasiera batean, prestakuntza paraleloari ekin zioten andereño laguntzaileak formatuz. Horretaz gain, tituluaren derrigortasuna kendu eta andereñoen formaziorako "Andereñoen Erresidentzia"²¹ egin zuten.

Zabaltzeko joera hau beldurrez eta mesfidantzaz ikusten zuten Elbirak eta nazionalismo tradizionalaren jarraitzaileek. Baina, euskalduntasunak bizirauteko etxe-eskolekin ez zuen nahikoa, modernizatze dinamikan murgildu beharra zuen, hizkuntza eta kultura kontserbatze hutsetik berreskurapenera bideratu behar zen. Eta

²¹ Andereñoen Erresidentzia (1964-1974) . Irakasleen formakuntzarako sortutako ekimena, bertan, ikastolen eredu pedagogikoa eraiki zen. Denak emakumezkoak izan ziren.

horretan ari ziren emakumeek, andereñoek, hartu zuten egokitze prozesu horren eragiletza.

Izan ere, etxe-eskoletatik hasi eta ikastolen hasiera hauetan berezia da ikustea irakasle guztiak, belaunaldi zaharrekoak eta berrikoak, emakumezkoak zirela. Eta zergatik ziren denak emakumezkoak? Arrazoi ugari aurki daitezke: legalak, sozio-ekonomikoak, ideologikoak, historikoak...

Legeari dagokionez 1945eko "Ley de Educación Primaria" k bere 19.artikuluan oinarrizko irakaskuntzako irakasleria emakumezkoa izango zela agintzen zuen.

Baina, horretaz gain, arrazoi sozio-ekonomikoek ere pisu nabaria zuten. Izan ere, hamarkada horretan estatu espainolean hazkunde ekonomikoa gertatzearekin batera, langile kualifikatuen eskaera igo egin zen. Eta ikasketa teknikoan gorakada handia gertatu zen. Maisutza ikasketak, berriz, lan merkatuan gutxi baloratuak eta gaizki ordainduak ziren, gizonezkoek ez zituzten ikasketok aukeratzen. Beraz, gizonezkoek "libre" uzten zituzten lan esparruak -irakaskuntza kasu- emakumezkoentzat geratu ziren.

Arrazoi ideologikoetan, emakumeak tradizionalki bete duen rola daukagu, seme-alaben zainketaren ardurarena, hain zuzen ere. Euskal nazionalismo tradizionalan, emakumea arraza eta kulturaren ziurtatzailatzat hartzen da, seme-alabekin egiten duen heziketa lanaren bidez. Beraz, andereño lanak emakume lana izan behar zuen.

Eta historikoki ere hezkuntza lana emakumeena izan da. Esaterako, horren erakusgarri izan zen Emakume Abertzale Batzak burututako lana, batetik hezkuntza ez formalean (poxpolinak, dantzariak, antzerkiak...antolatuz) eta bestetik, hezkuntza formalean (Euskal Herriko eskoletan ziharduten irakasleetatik 500 EABkoak ziren).

Baina, ikastolen hastapenetan irakasleria emakumez osatua izan arren, etxe-eskoletan ez bezala, egituretan hasieratik gizon nahiz emakumeak aritu ziren. Eta gizartean genero harremanen aldaketa gertatzen ari zelarik, pixkanaka-pixkanaka seme-alaben heziketa guraso lana izatera igaro zen .

Horrek aurreko eskemak apurtzea zekarren. Heziketa ez baitzegokion lehenago bezala, emakumeari soilik. Eta urte batzuk geroago, ikastoletan gizonetzkoak sartzen hasi ziren.

Izan ere, gizartearen sekulartze prozesuak eraginda, seminarioak hustu egin ziren eta euskararen aldeko militantzia lanaren barruan ikastoletan maisu hasi ziren hainbat eta hainbat abadegai. 1959-60an Gipuzkoan 198 abadegai zeuden eta Bizkaian 185. 1973-74.ean, berriz, 14 eta 74²². Ikastolak etengabeko hazkundera ari zirelarik, irakasle iturri garrantzitsua izan zen Seminarioetatik etorritakoa.

Baina 60.hamarkadan euskal irakaskuntzaren moldatzeko eta berrikuntzei zabaltzeko joera hasia zen jada. Nazionalismo tradizionalaren arraza gorde beharra barik hizkuntzaren berreskurapenari emango zaio garrantzia. Eta euskaltasunaren transmisioa familiarena izan ordez herriarena izango da. Horrela, lehenago emakume komunitate zena, herri mugimendu izatera igaroko da.

Hala ere, emakumeen eraginak eta lanak islaturik jarraituko du euskal irakaskuntzaren muintetan. Aldaketa garaietan, euskararen normalizazio eta berreskurapenerako oinarriak jartzen eragile moduan ageri baitzaizkigu. Eta geroago ere, ikusiko dugunez, irakaskuntzan arituko direnak eurek izango dira, gehien bat.

²² Liburu bera 159.orrialdea

3.2.1. Ikastolak eta hizkuntzaren berreskurapena: 60.hamarkada.

Ikastolen mugimenduak izugarritzko hazkuntza izan zuen urte batetik bestera. 60.hamarkadan Euskal Herriko herri desberdinetara egindako hedatze lana fruituak ematen ari zen. Eta eskaera areagotuz zihoan.

Eskaera handi horri erantzuteko, baina, ez zegoen behar besteko irakasle formaturik, ikasmaterialik, egitura sendorik...Gabezi hauei aurre egiteko 1968-69 ikasturtean sortu zen "Gordailu"²³ andereñoen sare antzeko bat, elkarlanean zailtasun eta oztopoei aurre egiteko. Beraz, etxe-eskoletan Elbirarekin ageri zaigun formaziorako arreta belaunaldi berriek ere jaso zuten. Eta lehenago aipatu dugun "Andereñoen Erresidentzia"z gain, ikastaro ezberdinak antolatzen zituzten eta auto-didakta itzelak izan ziren, bai pedagogiari dagokionean eta bai euskal hizkuntzari eta kulturari dagokionean.

Izan ere, Ikastoletako andereñoek egoera ez normalizatu batean lan egiteaz gain, gizartean zeuden hainbat aurreiritzi gainditu behar izan zituzten.

Esaterako, hizkuntzari dagokionez, guraso askoren kezka zen euskarak balio ote zuen benetan umea behar bezala hezitzeko. Euskarak ikasketetarako eta etorkizunerako kalte egingo ote zien beldur ziren.

Pedagogiari dagokionean ere, andereñoek European zebilen Eskola Tradizionala eta Eskola Berriaren arteko eztabaidan bigarrenaren alde egin zuten. Gurasoak, berriz, eskola tradizionalan

²³ Gordailuren helburuak honakoak ziren: Irakasleen prestakuntzarako ikastaroak antolatzea, materialak bildu eta zabaltzea Euskal herri osoan, Kataluniako eta Freineten eskolako materialak euskaratu eta egokitzea...

ikasitakoak ziren eta eskola berritik zetozen proposamenak ez zituzten ezagutzen eta alde horretatik ere mesfidati ageri ziren . “Ikastoletan ez zela ezer ikasten” iritzi hori arras hedatua zegoen.

Aurreiritzi guztiei aurre egin behar zitzaien, beraz, andereñoek ikastolek maila handia eskaintzen zutela erakutsi behar zuten. Eta horretarako etengabeko formazio eta berritze lanean aritzen ziren. Dena zen berria, hala nola, hizkuntza prestakuntza jaso behar zuten, euskaldunak izan arren gazteleraz alfabetatuak baitziren. Eta ikasmaterialaren sorkuntzan aritu behar zuten, ordura arte, *Xabierto* eta *Martin Txilibitu* liburuak baino ez zeuden-eta.

Horrek guztiak alfabetatze prozesua eta hizkuntzaren modernizatze prozesua ahalbideratu zituen. Ikastoletan euskararen normalizazioa, gaurkotu beharra eta beste hizkuntzen mailan jarri beharra, premia bizia baitzen.

Beraz, premia horrek eraginda, euskararen normalizaziorako emandako lehenengo urratsak ikastolekin harremanduta daudela esan daiteke. Hala nola, helduen alfabetatzearen lehenengo saioak.

Eta horren adibidetzat har ditzakegu 1966-1967 ikasturtean Lazkaon Beneditarren eskutik andereñoek emandako alfabetatze eta euskalduntze ikastaroak. Baina lehenago ere, 1952-53an Elbira Zipitria hasi omen zen Lazkaon bertan alfabetatze ikastaroak ematen. Ondoren, ikastaro horretan alfabetatutakoek ikastaroak ematen²⁴ jarraitu zuten eta horrela, alfabetatzerako sare bat eratu zen.

Beranduago, euskal gizartearen eskaerei erantzunez, 1967an Rikardo Arregiren²⁵ inizatibaz Euskaltzaindiak “Alfabetatze kanpaina” eratu zuen. Eta hauek izango ziren urte batzuetara Helduen

²⁴ Liburu bera. 165.orri.

²⁵ Euskal idazle, kazetari eta kultur eragilea (1942-1969).Kulturaren biziraupenerako bide batzuk proposatu zituen: euskal idazleen elkartearen sortzea eta dinamizatzea, euskal liburugintza bultzatzea eta euskal alfabetatzea gauzatzea (euskararen berreskurapenaren ildotik)

Alfabetatze eta Euskalduntzerako aek erakundearen sorrera bultzatuko zuten ekimen ezberdinak.²⁶

Horretaz gain, 1968an Euskaltzaindiak Arantzazuko biltzarrean euskara batuaren aldeko hautua egin zuen. Prozesu istilutsua izan zen, horretan ere, lehenago aipatutako nazionalismo bien arteko ezberdintasunak azaleratu baitziren. Nazionalismo tradizionalen zeudenek euskalkien alde egin zuten, batez ere, eta nazionalista berriek batuaren alde.

Ikastolek Euskal Herri osoaren ikuspegia izanik euskara batuaren alde egin zuten. Bestela, mugaz bestaldeko edota herririk herrirako hizkuntza desberdintasunak nola gainditu? Hezkuntza sistema nazionala eratu gura bazuten hizkuntzaren batasunak horretan berebiziko garrantzia zuen. Beraz, ikastoletako andereñoak euskara batua ikasi eta erabiltzen hasi ziren.

Erabilera horrek eragin zuen Euskaltzaindiak euskararen ezagupen eta gaitasun maila frogatzeko D titulua sortzea. Eta D titulu hau izan zen, hain zuzen ere, ikastoletan aritzeko ontzat eman zen eta euskal komunitate eskolarrak bere egin zuen lehenengo titulazio ofiziala.

Beraz, azpimarratu behar da titulu honek sinesgarritasuna ikastolei esker eskuratu zuela, ikastolak izan baitziren herriratu eta zabaldu zutenak. Hizkuntzaren "status"a bera ere ikastolen bidez sozializatuz.

Euskal liburugintzari dagokionean ere, ikastolen magalean sorturiko "Gordailu" bezalako taldeek lan handia egin zutela esan daiteke. Alde batetik, eskolarako materialgintzan, hala nola:

²⁶ Aek 1975ean sortu zen.

“hiztegi gintzan “Ikastola Hiztegia”, “Idazketa Hiztegia”, “Nire lehen hitzak”; eskolaurrerako “Mintza”, “Lehen irudi-Lehen hitzak”(irakurketa eta idazketarako metodo globala, jendearen artean oso arrakastatsua izan zena), “Matematika hastapenak”; OHOrako liburu desberdinak (matematika, hizkuntza, esperientziak...); kontsulta liburuen artean “Ikastola Liburutegia” izeneko argitaratu zuten, lau sailetan banatutako lan monografikoak: Natur Zientziak (...), Gizarte Zientziak (...), Geografia (...) eta Historia (...); mapagintza (...)”²⁷

Beste aldetik, irakasleei begirako materialen sorkuntzan, ikastaro ezberdinetatik jasotako materiala bildu eta Pedagogiari buruzko hainbat lan euskaratuz.

Ikastolak, hortaz, euskararen normaltze eta modernotze prozesuan motorra izan zirela esan daiteke. Eta Ikastolekin batera, era berean, kultur mugimendu handia eratu zen. Esaterako, liburugintzari dagokionean 1965ean hasi zen Durangon Liburu eta Diska Azoka ospatzen. Urte berean sortu zen euskal kantagintza berriaren ordezkari “Ez dok amairu” taldea e.a..

Beraz, ikastolaren hastapenak euskal kulturaren berpizte garai batean koka ditzakegu. Ikastolak eurek izanik askotan kultur mugimendu horren ardatza.

Esaterako, liburugintzari dagokionean ikastolak izan ziren zegoen eskaeraren bidez, sektore horren sorkuntzaren partaide eta eragile. Euskararen formalizazio eta normalizazio prozesuan ere ikastolak izan ziren bultzatzaile eta euskara batua herriratu zutenak.

Eta normalizaziorako urrats horiek euskararen berreskurapenerako esparru berriak zabaltzea ekarri zuen. Gizarte berrian euskarak bizirauteko behar zuen gutxiengo “status”a berreskuratzen ari zelarik.

²⁷ Liburu bera 181.orrialdea.

Jada, hasiak ziren ikastoletan etorkinen seme-alabak euskalduntzen. Eta abian zeuden gizartea euskalduntzeko gutxiengo baliabideak eta garrantzitsuena zena: horretarako ilusioa.

Izan ere, ez dugu ahaztu behar Francoren diktadurak jarraitzen zuela eta ikastolak bizirik eta etengabeko hazkuntzan zeudela andereño, guraso eta herritarren ilusio eta lanagatik. Sistema ofizialetik kanpo baitzeuden eta etengabeko jazarpena (inspektore eta bestelakoen bidez) pairatu behar zuten.

1969an etorri zitzairen lehenengo legeztatu beharra eta ordutik aurrera poliki-poliki instituzionalizatze bidera hurbilduz joango ziren. Instituzionalizatze bide horretan, emakumeen ardurak gutxituz joango ziren eta gizonezkoek hartuko zuten, batez ere, ikastolen erabaki guneen ardura.

5. GAUR EGUNEKO EUSKAL HERRIAN EMAKUMEA ETA IRAKASKUNTZA: ZENBAIT DATU.

Atal honetan, hasteko, gaur egunean Euskal Herrian dauden hezkuntza sistemetan euskarazko irakaskuntzaren nondik norakoak aztertuko ditut. Horretarako, euskararen gaineko legedia zertan den aipatu eta hezkuntza sisteman euskarazko irakaskuntzak duen lekua erakutsiko dut datuen bidez. Horretaz gain, euskararen irakaskuntzan ari diren erakundeei erreferentzia egingo diet eta bukatzeko, datu batzuk emango ditut emakumeak, bai euskarazko irakaskuntzan eta bai, euskararen irakaskuntzan duen leku nabarmena erakusten dutenak.

Aurreko mendean emakumea eta euskal irakaskuntza eskutik helduta joan direla ikusi dugu orain artekoan. Euskal irakaskuntzaren sorreran berebiziko lana egin zuten emakumeek. Umeak normalizatu gabeko hizkuntzan alfabetatu eta euskaldundu zituzten. Irakaskuntzaren oinarriak jartzeaz batera, belaunaldi berriak euskaldunduz euskararen biziraupena ziurtatu zuten, eta euskararen berreskurapenerako tresnak jarri zituzten abian.

Euskal komunitatearentzat garrantzi handiko mugimendua izan zen, nahiz eta beharbada hezkuntza sistema osoaren barruan fenomeno txikia izan. Bere txikian, hizkuntza eta hezkuntza propioaren bidean eragin handia izan zuela deritzot nik.

Euskal irakaskuntza deitu diogunaren hastapen horietan, euskal kultura eta hizkuntza suspertzea zen helburua. Eta Euskal Herria bere osotasunean hartuko lukeen eskola eredia lortu nahi zen. Egun Euskal Herrian daukagun egoera administratiboak bestelako hezkuntza sistema bideratu du. Eta nire ustez hezkuntza sistema

horrek euskararen normalizazioari begira urratsak eman baditu ere, euskal kulturaren transmisioa, hein batean, alde batera utzi du.

Horregatik, euskal irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza terminoak bereiztu gura izan ditut. Lehenengoan, hizkuntza irakas-ikas prozesuaren komunikazio tresna izateaz gain, nortasun edota kultura propioaren ezaugarri moduan ulertzen da. Eta bigarrenean hizkuntza irakas-ikas prozesuko komunikazio tresna baino ez da. Argipen hau egin ondoren, jo dezagun gaur eguneko hezkuntza sisteman euskarazko irakaskuntzaren egoera aztertzeraz.

Ikastolak eta euskalduntze erakundeak sortu ziren garaian, euskarak ez zeukan erakunde ofizialen aldetik inolako laguntzarik edo babesik. Kontrakoa debekatua eta zigortua zegoen euskaraz hitz egitea.

Gaur egun, euskararen gaineko arauari begiratzen badiegu, Euskal Autonomi Erkidegoan euskara ofiziala da, gaztelarekin batera. Nafarroan, berriz, eremu euskaldunean bakarrik, Nafarroa osoko hizkuntza ofiziala gaztelera baita. Eta iparraldean ez du inolako ofizialtasunik.

Lurraldetik lurraldera, beraz, legediari dagokionez, alde handia dago, eta horrek eragina du euskararen aurrerakadan edota atzerakadan.

Izan ere, lege babesak aginpidea eta baliabideak ematen ditu euskara esparru desberdinetan normalizatzeko. Esaterako, hezkuntza arloan, EAEko "Elebitasun Dekretua"²⁸ deitu izan zaionak honako irizpideetan zehazten du bere jardun-markoa:

" a) bai euskara eta bai gaztelania ikastetxe-mota guztietan derrigorrez irakatsi beharreko irakasgaiak dira, hasi Eskolaurrean (EA) eta OHOn barrena,

²⁸ uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua. Aurten, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean hizkuntza-ereduei buruzko eztabaida egin da. Eta badirudi aldaketak egongo direla.

Batxilergo (BBB), Lanbide-Heziketa (LH) eta Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturteraino (UBI).

b) hizkuntza ofizial bion irakaskuntza hiru eredu hauen bidez egin daiteke: A,B eta D. Irakasteredu elebidunak esaten zaie, hizkuntza ofizial bietan oinarritzen direnez beti eta nonahi.

c) Eredu bakoitzak begiz joak dituen helburuen, ikasleei eskuratu nahi dien euskara-ezaguerazko gaitasunaren eta berauen artean bultzatu nahi lukeen erabilera-mailaren arabera, honela sailkatu izan dira A, B eta D irakasteredu elebidunak:

A eredua: irakaskuntza gaztelaniaz egiten da, ia osorik. Euskara asignatura moduan irakasten da. (...)

B eredua: irakaskuntza, erdia gaztelaniaz eta erdia euskaraz ematekoa da. Hizkuntza biak dira beraz, irakasgai izateaz gainera, irakasbide. Etxetik erdaldun diren hurrek euskal gaitasun sendoagoa lortzeko bidea da. (...)

D eredua: irakaskuntza euskaraz egiten da, ia osorik. Gaztelania asignatura moduan irakasten da. Batez ere, etxetik euskaldun diren ikasleentzat pentsaturiko eredua da. (...) ²⁹

Horretaz gain, Euskal Eskola Publikoaren Legeak 1/1993 otsailaren 19koak, bere 3.artikuluan adierazten du euskal eskola publikoaren helburuetako bat dela ikasle guztiek, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango duela bermatzea.

Baina, lege horiek euskarari dagokionez ezartzen dituzten helburu asko ez dira bete. Eta azken urte hauetan legeon hainbat gabezia agerian geratu dira. Hala nola, Lanbide Heziketan euskarak duen presentzia hutsaren hurrengo da, eta ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izatea, oraindik, bete ez den helburua da.

²⁹ EMUN koop. E., ZALBIDE M., IZAGIRRE S. *Hezkuntza eta Lan Munduko hizkuntza plangintzak*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. (65-66.orrialdeak)

Hala ere, lorpenak ere egon direla ikus dezakegu. Esaterako, euskara derrigorrezko hezkuntza mailan, jada, txertaturik dago. Eta EAEko guraso gehienen hautua D ereduaren aldekoa da.

Hona hemen, horren erakusgarri 1983tik 2003ra hizkuntza ereduei dagokienez, 3 urterekin matrikulatutako ikasleen ehunekoen eboluzioa³⁰:

	82-83	87-88	92-93	97-98	02-03	1982-03
A eredua	77,2	66,2	53,7	40,7	22,6	-54,6
B eredua	9,2	14,4	19,9	20,8	22,5	+13,3
D eredua	13,16	19,4	26,4	38,5	49,7	+36,54

1983tik 2003ra, beraz, ezberdintasun nabarmena dago. A eredua gutxitzen joan da. B eredua nahiko estankaturik geratu da. D ereduan matrikulatutakoen kopurua, berriz, urterik urtera igoz joan da.

Euskarak lege babesik ez duen lurraldeetan, Nafarroako alde batzuetan eta iparraldean, aukerak asko murrizten dira. Baina horrek ez du eragozten, aurreko ataletan ikusi dugun moduan, herri ekimenaren bidez sorturiko hezkuntza proiektuak garatzea. Hala nola, ikastolak(EAEn hitzartuakl) eta euskalduntze erakundeak (aek), legediak legedi, Euskal Herri osora hedaturik baitaude. Eta egun ere, zailtasunak zailtasun guraso askok egiten du euskara hutsezko irakaskuntzaren aldeko aukeraketa.

Nafarroa Garaiko legediari dagokionez, 1986ko Euskararen Foru Legearen bidez, Nafarroa 3 zonen arabera banatua geratu zen: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Lege horrek bakarrik zonalde

³⁰ LAB irakaskuntza. (2006). *Irakaskuntza euskalduntzeko proposamena*. 5.orrialdea.

euskaldunetan ezartzen du derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan bi hizkuntzetan ezagutza maila egokia izatea .

Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, berriz, irakaskuntza ez unibertsitarioan euskara sartu eta erabilera arautu zuen. Eta gaur egun dauden hezkuntza ereduak ezarri zituen: eremu euskaldunetan EAEn bezala A, B eta D ereduak; eremu mistoan aurreko ereduak eta G ereduak, zeinetan euskara ikasgai moduan ere ez den ematen; eta eremu erdaldunetan A eta G ereduak baino ez.

Eremu mistoari dagokionez, hezkuntza-ereduen eskaintza Abuztuaren 30eko 848/1988 Foru Dekretuaren araberrako ikasle-ratioak kontuan hartuta egiten da. Beraz, D ereduko ikasgela bateko baimena lortzeko, gutxienezko ikasle-kopuru bat izan behar da. Eta kontuan hartu behar da, nahiz eta 2000. urtera arte jaiotze-tasan itzelezko beherakada izan, ikasle-ratioa ez dela aldatu legea ezarri zenetik.

Baina ikus dezagun Nafarroa Garaian 1988tik 2005era ereduak dagokienez, Haur hezkuntzan eta Lehen hezkuntzan gertatu den eboluzioa³¹ ehunekoetan:

	88/89	92/93	96/97	00/01	04/05	1988/2005
D ereduak	13,34	16,92	22,1	25,25	26,55	+13,21
A ereduak	5,48	9,58	17,2	26,67	27,83	+22,35
G ereduak	81,18	73,5	60,7	48,08	45,63	-35,55

Egun, A eta D ereduak matrikulatutako ikasleak gehiago dira G ereduak, erdara hutsekoak baino. B ereduak marjinala da. Beraz, azken urteotako eboluzioak, UPNren euskararen aurkako politika gaituz, gurasoak euskal ereduak hurbilduz joan direla erakusten du.

³¹ LAB irakaskuntza. (2006). *Irakaskuntza euskalduntzeko proposamena*. 7.orrialdea.

Iparraldean, euskarak ez du inolako aitortza ofizialik eta euskara hutsezko irakaskuntza ikastoletan baino ez da ematen. Hala ere, 2001eko irailaren 5eko 2001168 zirkularrak eskola publikoetan lekuan lekuko hizkuntza kontuan hartuta murgiltze bidezko irakaskuntza abian jartzea ahalbideratu zuen. Baina, Frantziako Estatuko Kontseiluak 2002ko abenduan, aukera hura murriztu eta murgiltze bidea (euskarazkoa) eskaintzea atzera bota zuen.

Beraz, egun, ikastoletatik aparte sare publikoan eta sare katolikoan, 3 hizkuntza eredu daude: elebitasun eredia, hastapen eredia eta frantses eredia. Oraindik, lau ikasletik hiruk ez du euskarazko irakaskuntza izpirik. Hala ere, azken zortzi urteetako kopuruaren eboluzioa kontuan hartuz badirudi elebitasun eredia etengabe gorantz doala³².

Horretaz aparte, euskararen irakaskuntzari dagokionez, helduen euskalduntzerako sare handi bat ere badago. Euskal Autonomia Erkidegoan HABE erakunde publikoaren barruan, hainbat euskaltegi publiko eta kontzertatu dago. Eta euskaltegi kontzertatuen artean AEK da Euskal Herri osoan hedaturik dagoena. Beraz, helduek ere garai batean baino aukera eta baliabide gehiago daukate euskara ikasteko.

Baina, gaur egun euskarazko eta euskararen irakaskuntza horretan emakumeak zein paper jokatzen du? Ondoren ikusiko ditugun datuek diotenez, emakumeak dira haur eta lehen hezkuntzan gehiengoa, eta helduen euskalduntzean ere emakumezkoak ari dira, gehien bat. Unibertsitate mailako irakaskuntzan, aldiz, gizonezkoak gehiago dira.

³² <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1305>

Datu horiekin hainbat ondorio atera ditzakegu. Horietako bat, euskararekin loturiko irakaskuntzan gizonezko baino emakume gehiago ari dela.

*Eustatek*³³, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1999an ondoko datuak argitaratu zituen: EAEko emakumezko irakasleak %75 ziren haur eta lehen hezkuntzan, %50 irakaskuntza ertainean, eta %33 unibertsitatean.

Iturri beretik atera dugu ondorengo orriko koadroa eta bertan ageri dira EAEn 2005/2006 ikasturtean araututako irakaskuntzan aritu ziren irakasleen kopurua sexua, maila eta titulartasunaren arabera:

³³ Euskal Estatistika Erakundea. <http://www.eustat.es>

	Euskal AE		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Guztira			
Araubide orokorreko irakaskuntzak	36.436	23.196	13.240
Unibertsitateaz kanpoko mailak	31.242	19.135	12.107
Haur-lehen hezkuntza(2)	14.746	8.712	6.034
Haur-hezkuntza	6.784	4.225	2.559
Lehen hezkuntza	10.041	6.114	3.927
Hezkuntza berezia(3)	477	287	190
Bigarren Hezkuntza(4)	15.113	8.711	6.402
DBH	10.242	5.530	4.712
Batxilergoa(5)	5.290	3.043	2.247
Lanbide-heziketa(6)	3.735	2.335	1.400
Helduen Hezkuntza	739	654	85
Unibertsitate-ikasketak	5.194	4.061	1.133
Araubide bereziko irakaskuntzak	1.095	607	488
Arteak eta lanbideak	83	28	55
Hizkuntzak	278	278	-
Musika	671	291	380
Dantza	14	10	4
Kirola	49	-	49
Emakumezkoak			
Araubide orokorreko irakaskuntzak	23.782	15.019	8.763
Unibertsitateaz kanpoko mailak	21.925	13.548	8.377
Haur-lehen hezkuntza(2)	12.251	7.411	4.840
Haur-hezkuntza	6.040	3.818	2.222
Lehen hezkuntza	7.932	4.943	2.989
Hezkuntza berezia(3)	352	212	140
Bigarren Hezkuntza(4)	8.719	5.013	3.706
DBH	6.545	3.652	2.893
Batxilergoa(5)	3.066	1.835	1.231
Lanbide-heziketa(6)	1.538	879	659
Helduen Hezkuntza	515	440	75
Unibertsitate-ikasketak	1.857	1.471	386
Araubide bereziko irakaskuntzak	610	385	225
Arteak eta lanbideak	43	13	30
Hizkuntzak	219	219	-
Musika	338	148	190
Dantza	9	5	4
Kirola	1	-	1

Beraz, hemendik atera dezakegun ondorio nagusia, honakoa da: EAEko irakaskuntza arautuan ari diren irakasle gehienak emakumezkoak dira arlo eta maila guztietan, Lanbide Heziketan, Unibertsitatean eta Kirol hezkuntzan izan ezik.

EAEko irakasle-eskoletan matrikulatutako irakasle gaien 2003/2004 ikasturteko datuak ikusita ere, egiazta dezakegu gizonezko baino emakume gehiagok aukeratzen dituela irakaskuntzara bideratutako ikasketak:

2003/2004 ikasturtea	Guztira	Emakumezkoak
Haur-hezkuntza	1.872	1.680
Lehen-Hezkuntza	1.518	1.110
Atzerriko hizkuntza	591	450
Gorputz-hezkuntza	638	223
Musika-hezkuntza	273	206
Hezkuntza berezia	445	406

Koadro honetan ageri zaigun salbuespen bakarra, gorputz-hezkuntzako ikasketei dagokiena da.

Oro har, datuotatik atera nahi izan dudan ideia nagusia, lehenago esan dudan bezala, hauxe da: euskara normalizatuago dagoen irakaskuntza mailetan, derrigorrezko hezkuntzan eta Batxilergoan, gizonezkoak baino emakumezko gehiago ari direla.

Unibertsitatea eta Lanbide Heziketan, ordea, euskararen eta emakumezkoen presentzia urria da, oraindik.

Horretaz aparte, euskararen irakaskuntzari dagokionez, HABEk³⁴2005ean kaleratutako datuek honakoa diote:

" Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegietan 1.505 irakasle ari dira helduei euskara eskolak ematen. Horietatik 1048 emakumezkoak dira, gainontzekoak,457, gizonezkoak"

Bestalde, Euskal Herri osoan hedaturik dagoen AEK erakundeak aurten³⁵ emandako datuen arabera, irakasleen %67a da emakumezkoa.

Irakaskuntza eta emakumearen artean dagoen lotura agerikoa da. Baina, zein arrazoi dago lotura hori bultzatzen duena? Ziurrenik arrazoi sozio-ekonomikoek izango dute horretan eragin handiena. Gizonezkoek lan teknikoagoetara jotzen baitute. Eta horiek dira, oraindik ere, gizartean baloratuagoak direnak.

Baina, arrazoi kultural eta historikoek ere eragina dute. Izan ere, egungo gizarte aurreratuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzen den garaiotan, oraindik, sexu bakoitzari dagozkion esparruak ondo bereziak daude. Eta erabaki eta botere-guneak, oraindik, gizonezkoen esku daude.

Esaterako, Irakaskuntzaren ardura emakumezkoek hartzen dute, baina, hezkuntza mailako erabaki guneetan gizonezkoak ageri zaizkigu, ikastolen elkarteko zuzendariak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua, HABEko zuzendaria..e.a..

³⁴ <http://www.habe.euskadi.net>

³⁵ Aekako langileen arduradunak emandako datua da honakoa.

Historikoki, emakumea irakaskuntzari loturik ageri izan zaigu eta , oro har, heziketari. Euskal Herrian horrek berebiziko garrantzia izan du. Emakumeari egotzi baitzaio umearen heziketaren arduraren guztia. Eta bereziki emakumearen esku egon da hizkuntza eta kulturaren transmisioa. Beraz, pentsa liteke emakumeen ekarpen hori islaturik dagoela bai euskal irakaskuntzan eta bai euskaran.

6. ONDORIOAK

Aurreko mendeko erdialdetik hona euskal irakaskuntzak aldaketa ugari jasan ditu. Gizartea bera aldatuz joan den heinean, euskal irakaskuntza aldaketoi erantzunez joan da.

Frankismo garaian, euskal irakaskuntzaren zutabeak eraiki zirenean, ia ez zegoen inolako baliabiderik. Andereñoek euren burua formatu behar izan zuten eta sorkuntza lan handia egin: euskaraz alfabetatu, ikasmaterialak sortu...la ezerezetik abiatu ziren, dena zegoen egiteke. Gaur egun, ordea, ikasmaterialik ez da falta, euskararen formalizazioa garatze-bidean da eta , oro har, baliabideak ugari dira.

Hala ere, gaur egun Euskal Herrian dauden hezkuntza sistemek ez dute euskalduntzen. Hori diote Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketa desberdinek eta Kontseilua erakundeak edota Bai eskolak euskalduntzeari herri ekimenak plazaratutako datuek: Euskal Herriko 3 ikasletik 2 ez dira euskalduntzen. Eta jakina, datuok gaztelerazko irakaskuntzari ez ezik, euskarazko irakaskuntzari ere badagozkie. Hau da, ikasle asko, nahiz eta euskaraz ikasi, ikasketak burutzean ez dira euskaraz hitz egiteko gai.

Era berean, kontuan hartu behar da lehenago hizkuntzaren transmisioa, batez ere, etxeetan egiten zela. Gaur egun, ordea, nire ustez, hezkuntza sistemaren kargu uzten da, hein handi batean,

hizkuntzaren transmisioa. Eta hezkuntza sistemak, oraindik, euskarari dagokionez gabezia askotxo dituela agerian dago.

Gabeziak gabezi, urte hauetan guztietan euskal irakaskuntzan, aldatu ez dena, emakumeen presentzia handia izan da. Presentzia handi horren arrazoiak lehenago ere aipatu ditut eta ugariak izan daitezke. Baina, funtsean, arrazoi horiek guztiek gizartearen egituraketarekin dute zerikusia. Hau da, emakumeari tradizioz eta gaur egun, oraindik, egozten zaion hezitzaile eta zaintzaile rolaekin.

Era berean, euskal irakaskuntzan emakumeak duen presentziak edota emakumeen zenbait hizkuntza jokaerek, horiek euskararekiko nolabaiteko atxikimendua dutela erakuts dezakete.

Izan ere, emakumeak izan dira menderik mende etxean euskararen transmisioaz arduratu direnak. Euskararen aurkako garai gogorretan, eurek izan ziren aurrea hartu zutenak eta hizkuntzari arnas berria eman ziotenak, etxe-eskoletan irakatsiz, alfabetatze ikastaroak eginez, ondoren ikastolak sortuz...Gaur egun ere, gizonezko baino emakumezko gehiago ari da euskal irakaskuntzan, eskoletan, ikastoletan, gau-eskoletan...

Azken urteotan, emakumeen euskararekiko atxikimendua erakusteko hipotesi ugari egin dira. Esate baterako, gure hausnarketekin bat dator Kike Amonarriz. Amonarrizek euskararen erabilera feminizatzen ari dela dio eta hori erakusteko hiru arrazoi ematen ditu³⁶:

"1.Emakumeek inplikazio linguistiko handiagoa bereganatu dute ohikoak diren funtzioak garatu behar izan dituztelako (hezkuntza munduari eta transmisio munduari, orokorrean, lotuta agertzen diren heinean).

³⁶ <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1780>

2. Emakumezkoek bete ohi dituzten lanbideetan euskararen eskaera eta erabilera handiago delako.

3. Azkenik, eskola ordurik kanpoko jarduerari egiten die soilari Amonarrizek. Bere ustez, neskek eta mutilak oso praktika desberdinak dauzkaten heinean, batak zein besteak aukeratzen dituzten aisiarako esparruen hizkuntz errealitatearen menpe egongo lirateke. Gauzak horrela, antza denez, gizonaen jarduerari esparruak (kirola, batez ere) emakumezkoenak baino erdaldunduagoak daude eta horrek mutilen hizkuntz jokoan eragin nabarmena izango luke. "

Euskararen feminizazio prozesua ontzat hartuko bagenu, dudarik gabe, emakumezko eta gizonaen arteko rol-banaketarekin egingo genuke topo. Eta konturatuko ginateke, hizkuntza, gizartea eta kulturaren artean harreman konplexuak daudela.

Hala ere, hipotesi hori baieztatzeko ikerketa zehatza egin beharko litzateke eta datuak eskuratu beharko genituzke. Izan ere, hipotesiak hipotesi, genero ikuspegiaz egiten diren ikerketa gutxi dago, oraindik.

Eta zertarako litzateke interesgarria ikerketetan genero ikuspuntua ezartzea? Adibidez, Emakumeek euskararekiko atxikimendu handiagoa erakusten dutela frogatzeak zein ondorio ekar litzake gure eragin esparruan? Esaterako, hizkuntza plangintza bat burutzean ikuspuntu hau kontuan hartuko al genuke?

Hizkuntza Antropologiaren ekarpenak aintzat hartuz, ikuspuntu hau ezartzeak garrantzi handia izan lezake. Esaterako, hiztunen errealitatea ezagutzeko eta horren bidez hizkuntzaren benetako egoera zein den jakiteko. Hau da, diagnosi zehatza egin ahal izateko eta ondoren normalizatzeko behar dituen urratsak hobeto identifikatzeko.

7. BIBLIOGRAFIA.

AIZPURUA, Jon; BERRIO-OTXOA, Kontxesi (2006-2007). *Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa*.

DEL VALLE, Teresa (1996). *Las Mujeres en Euskal Herria. Ayer y Hoy*. Donostia: Egin.

DEL VALLE, Teresa (1988). *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.

EMUN Koop. E., ZALBIDE, Mikel, IZAGIRRE, Santos. (2006-2007) *Hezkuntza eta Lan munduko hizkuntza plangintzak*. 23.ikasgaia. HIZNET Hizkuntza Plangintzak ikastaroa.

FERNANDEZ, Idoia (1994). *Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian*. In: Jakin 83.zk. Donostia.

FERNANDEZ, Idoia (1994). *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo. UEU.

HERNANDEZ, Jone Miren (2006-2007). *Hizkuntza kulturaren bitarteko gisa. Antropologiaren ekarpenak*. 6.ikasgaia. HIZNET Hizkuntza Plangintzak ikastaroa.

LAB IRAKASKUNTZA (2006). *Irakaskuntza euskalduntzeko proposamena*. Hezkuntza Politika 05/06.

RODRIGUEZ, Fito . *Ikastolak eta euskal eskolak*. ORAIN S.A.

- **INFORMAZIO ITURRIAK**

<http://www.eustat.es>

<http://www.habe.euskadi.net>

<http://www.karrajua.org>

http://www1euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/emabatza.pdf

<http://www.uztar.com/berria/fitxategiak/uztar09>

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1305>

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1780>